



Perico Legasse

«Frantses ondare
alimentarioaren
defendatzaile
sutsua naiz. Euskal
abertzaletasunak
eraman nau
horretara»



- **Buenaventura Durruti** Anarkistaren leinua aurkitu dugu Nafarroa Beherean
- **Argia Eguna** Herriz herri jarri ziren 300 mahai haiek
- **Euskara** Jokin Azkueren (Eusko Jaurlaritza) erantzuna Zigor Etxeburuari (Gipuzkoako Aldundia)
- **Net Hurbil** Ukraina eta gerra hotzaren oihartzunak Europan
- **Biodibertsitatea** Hamarkada bateko atzerapena Natura 2000 Sarearen ezarpenean

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Azaleko argazkia:
RODRIGO LLOPIS
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta
argitara ditzakezu, gure
egilek aitortu eta baldintza
beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria:
Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-
Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura:
Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa:
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara:
Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander
Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner.
Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza
teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite
Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego
Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.
Harrera: Jone Arzallus. Harpidetza: Iraitz Agirre.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-
Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa
Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña.
Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1,
2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa:
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel:
948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala:
komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com.
Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko
harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal
Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182
euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko irailaren 7a, 2.427. zenbakia

ASTEKO GAIA

NATURA 2000 Hamar urteko atzerapenez ari da chuntzen sarea.
UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

PERICO LEGASSE: «Ongi janean salbatuko dugu Lurra».
SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

FUKUSHIMA Ebakuatuen oinaze isildua. JOXERRA AIZPURUA
SARASOLA / 14

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK Supermerkatuak egin eta egin, eta
txikiak pikutara goaz. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 15

IRITZIAREN LEIOA

GIZA ELKARTEAK ALA KLUBAK?

GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 16

UDABERRIKO BOZAK GOGOAN

ENRIKE DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÁ / 18

ERABAKITZEN DUEN HERRIA HERRIAGO DA

AITOR AGIRREZABAL / 19

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 17

TXANDAN Jaun txit gorenari. JOANES ETXEBARRIA / 18

BERTSO BERRIAK Oporrak kanpungan.

AINHOA AGIRREAZALDEGI REKONDO / 19

ERDIKO KAIERA

GETXO PHOTO 2014 Eguneroko paisaia aldatzeko artea.
MYRIAM GARZIA / 20

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ / 24

IKUS-ENTZUTEKOAK GAIKKA IZAGIRRE / 25

IHESI IZURA (NAFARROA BEHEREA) Bide gurutzean.
ITXARO BORDA / 26

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

BUENAVENTURA DURRUTI Leonera emigratu zuen Laurent
Durrutiren leinua kausitu dugu Aiherran. MIKEL ASURMENDI / 36

KATALUNIA-AZAROAK 9 Egingo ote du jauzi Masek?
XABIER LETONA / 40

ARGIA EGUNA Euskal prentsa aldarrikatzeko talaia 80ko
hamarkadan. URKO APAOLAZA AVILA / 43

ZIGOR ETXEBURUARI ERANTZUNA Utzi euskara politikarietatik
salbu! JOKIN AZKUE (EUSKO JAURLARITZA) / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 46

NET HURBIL Europa Ukrainan katramilatu zen 2014ko uda hura.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 47

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Hamar urteko atzerapenez ari da ehuntzen sarea

Biodibertsitatea babesteko neurrien alde daude europar gehienak, inkesten arabera. Askok gutxiago dakite Europar Batasunak horretarako duen tresna, oraindik guztiz egituratu gabea, Natura 2000 Sarea dela. Erabat osatzen denean, babestutako eremuen munduko sare zabalena izango da. Euskal Herrian azken urte parean hasi dira ezartzen sareko eremuen babes planak –isun handien mehatxupean, dena esatera–, prozesuak 2004rako burututa behar zuen arren.

| UNAI BREA |

EUROPAR BATASUNAK duela hogeit hamar urte baino gehiago ezarritako epeak bete izan balira, seguruenik erreportaje honen xedea Natura 2000 Sarearen emaitzak aztertzea litzateke. Horren orde, aurreikusi zena baino askoz astiroago gauzatzen ari den prozesu baten berri emanen dizuegu hurrengo orrialdeetan. 90eko hamarkadaren hasieran abiatu arren EBko herritar gehienek ia batere ezagutzen ez duten prozesua, besteak beste bitarteko urritasunak moteldutakoa, eta aurkari faltan ez dagoena.

1992an Rio de Janeiron egindako Lurraren Gailurraren (ikus ARGIAren 2.325. zenbakia) emaitzetako bat Nazio Batuen Erakundearen Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena izan zen. Hitzarmen horren helburuak betetzeko sortu zen, hain zuzen, Natura 2000 Sarea egitasmoa, EBk 1992an bertan onartutako Habitaten Zuzentzarauan oinarritutakoa. Europar dauden eremu natural eta espezie esanguratsuak kontserbatzea da asmoa.

Europako Batzordearen hasierako nahien arabera, 2004an erabat osatuta behar zuen sareak. Hamar urte eta gero, ez da hala. Geroago aztertuko ditugu xheago atzerapenaren zergatiak, baina aurretik komeni da Natura 2000 nola egituratzen den azaltzea, gaia behar bezala ulertzeko.

Sarearen egitura

Bi motatako eremuek osatzen dute sarea. Batetik KBE izenekoek, hots, Kontserbazio Bereziko Eremuek; horiek dira, hain justu,

Habitaten Zuzentzarauak ezarritako figurak. Besteak, berriz, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) dira, sano aspaldikoa goa –1979koa– den eta gerora Natura 2000n txertatzea erabaki zen Hegaztien Zuzentzarauetik eratorritakoak.

HBBEak estatu bakoitzak izendatzen ditu, Europaren esku hartzerik gabe, eta zuzenean Natura 2000 Sarearen parte bihurtzen dira. Alta, Sarea KBek osatzen dute batez ere. Agian zehatzagoa litzateke “osatuko dute” esatea, horien ezarpenean gertatzen ari baitira atzerapenak.

Atzerapenaren arrazoi nagusietako bat baliabide falta da; Natura 2000 aurrez zeuden legediekin bateratzea lan zaila da, eta ez dago nahi beste bitarteko

KBE bat sortzeko prozedura askoz konplexuagoa da. Lehenik eta behin, estatu bakoitzak kontserbazioa behar duten guneen zerrenda egin behar du, eta Europako Batzordeari proposatu. Gune horiei Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) esaten zaie. Batzordeak oniritzia emanez gero, sei urte-

ko epea dago BGL bakoitza KBE bihurtzeko, alegia, kontserbazio helburuak bermatuko duten plangintza prestatu eta martxan jartzeko. Izan ere, BGLak proposamenak baizik ez dira. Benetako babesak KBEEK ematen dute, haien plangintzetan baitaude adierazita gabeziak, helburuak, neurriak eta bitartekoak. Plan bakoitza behar bezala betetzen ari den ala ez sei urtero aztertu behar da.

“Isunak ikaragarriak dira”

EBren hasierako asmoa zen BGLen behin betiko zerrenda 1998rako burututa egotea. Eta hortaz, 2004an denak KBE izatea. Ez da hala izan. Euskal Herriari dagokionez, esan



daiteke azken bi urteetan hasi dela KBEen izendapena behar bezalako erritmoan.

EAEn, administrazioaren asmoa prozesua 2015ean burutzea da, Amaia Barredo Eusko Jaurilaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariaren esanetan, “EBk abiarazia baitu dagoeneko Espainiako Estatuaren aurka auzibide bat, eta isunak ikaragarriak dira, guretzat gehiegizkoak”.

EAEko 58 gune daude Natura 2000 Sarearen barruan; lurraldearen %20 inguru –%23raino igo liteke–. Horietako sei Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak dira. Gainerakoetatik, 27k badute KBE izendapena hau idazteko momentuan, baina beste 25ak BGLak dira oraindik.

Nafarroan okerragoak dira portzentajeak. Bertako Gobernuak ez die gure galderei erantzun; horren orde, herritar guztien esku dagoen webgune batera bideratu gaitu. Hor ikus daiteke Nafarroak 42 BGL proposatu dituela Natura 2000n txertatzeko –herrialdeko gainazalaren %24–, baina oraingoz hamar baino ez direla bihurtu KBE. Horrez gain, hamazazpi HBBE daude.

Atzerapenaren zergatiak

Atzerapenaren arrazoi batzuk aipatu dizkigu Amaia Barredok. Nagusia, apika, nahi beste tresna ez izatea eskueran. “Europako Batzordeak ulertu behar du arlo askori buruzko

Aiako Harria da EAEn momentuz izendatu diren 27 Kontserbazio Bereziko Eremuetakoa bat.

araudiak ezartzen ari dela eta tokian tokiko administraziook gero eta baliabide urriagoak ditugula eskura”. Kontuan izan behar da Natura 2000 Sarea ez dela orube huts batean ezarri beharreko araudi bat. Haren aurretik bazeuden, eta badaude, norberaren legeak ezarritako babes figurak –EAE eta Nafarroaren kasuan parke naturalak dira garrantzitsuenak–, eta Barredoren ustez ondorioa da araudi eta dokumentu mota lar egotea aldi berean. Gune asko, zer esanik ez, bi araudiren gerizpean geratzen dira Natura 2000ko figuren ezarpena egin ahala –EAEko gainazaleraren %14, esate baterako, babes figura bi edo gehiagoren menpe dago–, eta egoera hori behar bezala kudeatzeak baliabide asko eskatzen du.

EAEren kasuan, gainera, Jaurilaritzak dauka plangintzak egiteko ardurak, baina ondoren aldundiei dagokie kudeaketa. Natura 2000ren ezarpena atzeratzearekin jarrera kritikoa duten zenbait taldek, elkarte naturalistek eta ekologistek batik bat, erakundeen arteko deskoordinazioa salatu dute. Eusko Jaurilaritzak onartu du hori arazoa dela.

“Sinplifikatu beharra”, azpimarratu du Amaia Barredok. Ildo horretan, Eusko Legebiltzarrak Natura Babesteko Legeari hainbat aldaketa ezartzea onartu zuen iaz. Horietako bat da toki berean babes figura bat baino gehiago dagoenean kudeaketarako dokumen-



NORBERT POTENSKY-CC BY SA

tu guztiak bakar batean uztartu behar direla. Neurriak norainoko mesedea egingo duen esateko goiz da oraindik, jakina.

Iparralde: Natura 2000ren aurkako jarrerak
Iparraldean egoera ez da hobeia. “Frantziako Estatuak sekulako gibelapena ukan du eta du oraindik Natura 2000ri buruz”, adierazi digu Iker Elosegi Euskal Herriko Laborantza Ganbarako (EHLG) koordinatzaileak. Bate-tik, Elosegi salatzen duenez, “Parisko agintari-erri bost axola zaie biodibertsitatearen babesa”. Egiten dutena, Bruselak behartuta egiten dute. Bestalde, kontuan hartu behar dira Frantziako Estatuak sortu diren Natura 2000 Sarearen kontrako zenbait jarrera. Hain zuzen, Akitanian nabarmendu dira halakoak. Aipatzekoa da Jean Lassalle biarnotar hautesiaren jarrera, Iker Elosegiren ahotik ezagutu duguna. “Natura 2000k debekatu digu ehizatzea, arrantza egitea... Parisek ezin digu hori inposatu!”. Botoak eskuratzeko balio izan dute gisa horretako mezuek, EHLGko kidearen esanetan. Ehiza, Arrantza, Natura eta Tradizioak alderdia desagertu zen, baina hark defendatutako pentsamoldeak indarra du oraindik Iparraldean, barnealdean bereziki.

Kontratu bidezko kudeaketa

Astiro eta berandu bada ere, Natura 2000 gorputzuz doa Ipar Euskal Herrian, nolana.

Biodibertsitatearako interesa duten espezieak eta habitatakat kontserbatu eta, behar denean, haien egoera hobetzeko helburua dauka Natura 2000 Sareak. Irudian, ugatza (*Gypaetus barbatus*), gurean desagertzeko arriskuan dagoen espezieetako bat.

EHLG ere jartzen ari da aletxo horretan. “Natura 2000n egon behar duten guneen definiziorako irizpideak berdinak dira Europa osoan –azaldu du Elosegi–, baina gero estatu bakoitzak bere erara izendatzen eta kudeatzen ditu eremuak”. Estatuak sarearekiko duten jarrera sorta zabalean bi mutur daude, eta bietako batean Frantzia dago. “Europa iparraldeko herrialde batzuetan, estatuak bere gain hartzen du kudeaketa guztia eta herritar-erak ez du ezer esateko. Frantzia, aldiz, Natura 2000n egon beharreko eremu bat izendatu eta gero, estatuak bertako eragileen esku utzi ohi du kudeaketa”. Hala, frantsesez COPIL siglak dituen batzorde batek aztertzen du gune bakoitzaren egoera, eta helburu-txosten bat (DOCOB) ezartzen. “DOCOB horrek ekintza konkretuak proposatzen ditu, eta ekintza horiek gauzatu daitezkeen bertakotengana joan eta hainbat urteko kontratu bat egiteko galdatzen zaie. Jabeak nahi badu, ongi. Ez duela nahi? Itzuliko naiz berriz”.

2005ean sortu zenetik, EHLGk hainbat COPILetan parte hartu du. “Azkar erabaki genuen gure lan ildoetan sartzea Natura 2000 Sarearen sustapena, laborariok ingurumenarekiko sekulako erantzukizuna dugula pentsatzen baitugu”, diosku Elosegi. Hala, hainbat gune-tako laborari-erri kontratuak sinatzeko proposamena eraman diena EHLG bera izan da. Nekazariak onartzen badu COPILaren

proposamena, diru-laguntza bat jasoko du trukean, NPBrako aurrekontuetatik aterako dena (ikus ARGIAren 2.143. zenbakia).

Egitura administratibo propiorik ezak zailtzen du portzentajeak ematea, baina Iker Elosegik dio Ipar Euskal Herriko zati handi bat dagoela Natura 2000 Sarean. Esan nahi baita, sareko parte izateko gai dela. Besterik da babes eraginkorra ezarri izana. Aipatu dugun atzerapena dela-eta, momentuz lurraldearen portzentaje txiki batean –hori ere ezin zehaztu– besterik ez dira izenpetu kontratuak.

Nekazariekin talka

Kontratu bidezko sistema eraginkorragoa al da biodibertsitatearen babeserako estatuaren esku hartze zorrotza baino?, galdetu diogu Elosegiri. Hona arrapostua: “Ez dut elementurik konparazioa egiteko. Dena den, iparraldeko herri horietan biztanle dentsitatea oso apala da, eta biodibertsitatea, ez beti baina maiz, ez da lotua jendeen eginkizunei. Aldiz, Europa hegoaldean, eta zehazki Euskal Herrian, biodibertsitatea gorde izana lurraldea baliatzeko manierari lotua dago, eta bereziki laborantzari. Beraz, laborariari esatea ‘hau egin dezake-

zu, hau ez...’ ez da egingarria, ezin da hori inposatu”.

Nolabait, jarrera horrekin bat datoz Hego Euskal Herriko lehen sektoreko hainbat sindikatu –EHNE Bizkaiarekin eta Arabako UAGArekin hitz egin dugu guk–; hala, Natura 2000 Sarea ezartzen ari den moduarekin jarrera kritikoa agertu digute. EHNE Bizkaiako Andoni Garciaren berbetan, “bitxia da Natura 2000n sartu beharreko gune asko bertan egon den nekazaritza eta abeltzaintza jarduerari esker mantendu direla egoera onean, eta aldiz, gune horietarako konterbazio plangintzak diseinatzean, jarduera horri baldintzak eta mugak ezartzen zaizkiela”.

Eusko Jaurlaritzako Amaia Barredok badu erantzunik kritika horien aurrean: Natura 2000 Sareko gune batean egoteagatik euren jardunean nolabaiteko kaltea jasaten duten nekazari eta abeltzainei diruzko ordaina ematea aurreikusita dago. Kontua da, eta hori da sindikatuen beste kexa nagusietako bat, ordainketa horietarako sosak ez direla ingurumen sailetakoa patrikatik aterako, lehen sektorerara bideratutako aurrekontuetatik baizik. Eta hain zuzen, Landa Garapenerako Programe-

Natura 2000ren planteamendua lehendik dauden legediena baino eraginkorragoa da, bestek beste kontrol neurri zorrotzagoak ezartzen dituelako

Kalean da irail-urriko



aizu!

- Antzerkhizkuntza euskara lantzeko
- Sarea euskalduntzen
- Irakurketa erraza euskaraz
- Juanma Garate arin-arin
- Josefina Lamberto barne bakearen bila
- Alternatiben xerka, Bizi!

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizunet.org



tatik; hau da, NPBtik. UAGako presidente eta EHNE konfederazioko kide Jose Antonio Gorbearen ustez, bidegabekeria da hori: “NPBren aurrekontua aldatzen ari da, Ingu-rumen Sailak egin beharko lituzkeen ordain-ketak egiteko. Eta gainera, oso kopuru txikia bideratu da Natura 2000 Sareagatiko konpen-sazio horiek egitera. Ez gaude Natura 2000 ezartzearen aurka, baina gure jarduerari mugak ipiniko badizkiete ordaindu diezagute-la behar den bezala”.

Dirua nork jarri behar du?

Bidenabar, honako hausnarketa helarazi digu EHNE Bizkaiako Andoni Garciak: EAEko gainazalaren %20 Natura 2000 Sarean sartzea gehiegizkoa da. Uste berekoa da Jose Antonio Gorbea. Beste batzuen iritzian, berriz, handiagoa ere izan zitekeen. “Natura 2000k har-tzen duen eremua ez da txikia, baina uste dugu BGL batzuen azalerak handiagoa izan behar zuela”, diosku Aitziber Sarobek, Zarauzko Arkamurka Natur Taldeko kide eta biologoak. Gipuzkoako kasuaz mintzo da Sarobe batik bat, horixe baita ondoen ezagu-tzen duena: “Legeak behartzen du BGLak KBE bihurtzeko prozesuan parte-hartze saio-ak egitera, eta guk horietan adierazi izan ditu-gu gure kezak, baina ez du ezertarako balio izan, saioak nahiko hutsalak suertatu direlako;

Natura 2000 Sareko gune asko ibaiak eta ibaiertzak dira. Ipar Euskal Herrian, konparazio baterako, denak daude sarean sartuta, bat izan ezik. Goiko argazkian, Bidasoa ibaiak Elizondon. Nafarroako Gobernuak izendatuta dauzkan 42 BGLetako bat da Bidasoa.

administrazioaren ikuspegia bete da, batzue-tan biodibertsitatearen defentsa lehenetsi gabe”. Hain zuzen, Sarobe kexu da parke naturalekin bat egiten duten BGLen eremua lehendik parkeak zuen bera izateaz –“admin-istrazioarentzat erosoagoa delako”–, baita biodibertsitatearen babesaren ikuspuntutik eremua zabaltzea gomendagarria zen kasue-tan ere. Kontuan izan behar da, Saroberen esanetan, Euskal Herrian –isurialde atlantiko-an batez ere– dauden gune naturalak txiki samarrak direla, eta elkarrekiko loturarik gabekoak. “Espezie batzuek ez dute bizitzeko leku nahikoa”.

Edozein kasutan, Natura 2000 Sarearen planteamendua lehendik ditugun legedia-na baino hobe dela uste du Aitziber Sarobek. Besteak beste, kontrol neurri zorrotzagoak ezartzen dituelako. Amaia Barredok bat egi-ten du, horretan, Saroberekin. “Izan ere, ikus-pegia zeharo desberdina da”, azaldu digu Jaurilaritzakoak, “orain arte legeen joera izan da zegoena mantentzea, eta Natura 2000k, aldiz, kontserbazio aktiboa sustatzen du: ondo dagoena, gorde ez ezik, hobetzea. Eta askoz zehatzagoa da helburuak eta tresnak zehazteko orduan”. Horrek nolako etekina ematen duen jakiteko itxaron egin behar-ko dugu, ordea. ■



«Ongi janez salbatuko dugu Lurra»

“... Periodikuak ez dire gutaz mintzatzen Parisen”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Rodrigo Llopis



Nola definituko zenuke zure aita, Marc Legasse?

Identifikazio pertsonala medio, oso gaitza da norberaren aita definitzea. Mitoa, izan zen gizona, eta izaten saiatu zena daude. Humanista zen, burges jantzia, haizea baino askatasun-zaleagoa, kausek kautibatua, eskala gizatiarreko intelektuala. Euskal populuaren kausa intelektualizatzeak bizi zuen, ideien gerrazelaian gudukatzen zuen Euskal Herriaren burujabetza eskubidea. Euskal Herriaren historia eraldatu gabe, bere sentimenduetara eta fantasietara egokitu zuen. Populu anarkista ikusten zuen Euskal Herriarengan, bere exis-

tentzia osoan bere libertatearen alde borrokatzera kondenatutako herria. Horregatik zion sekulako izua askatasun hori erdietsiz gero gerta zitekeenari. Azken hatsa eman arte, gatazka horretan sakrifikatu zituen bere etxe-ko bizimodua, baliabideak eta energia. Mingostasun betean hil zen, Lizarra-Garaziko ituna susmatu gabe, EAEko autonomia estatutua ausazkoagoa zela sinetsirik, eta frantses jakobinismo errepublikarrari departamendua eskatzea ilargia eskatzea zela zirudienean. Baina tira, mingots ala goxo, borrokatzeko aukera izatea zen beretzat garrantzitsuen.

Lurralde elkargoaren eta erabakitze eskubidearen aldarrikapenak puri-purian daude egun.

Independentziaren kulturaz hazi eta hezia izan naiz. Hala, euskaldunok populu bat osatzen badugu burujabetza eskubidea aplikatzen digute eta nazio burujabe bihurtzen gara. Ez dago besterik, negoziatzeko da, eta hortik beherakoa... Frantziako zein Europako politikagintzari buruzko ene jarduerak nahiz gogoetak edozein direlarik ere, euskal nazionalistatzat daukat ene burua. Izan ere, nazionalismo okerra estatu burujabeena da, nazismora daramana, baina nazionalismoa nazio burujabe bihurtu nahi duen herriaren aldarria denean, askapen nazionalako borroka bat da, ez inoren ukazioa. Euskal Herrikoa nazionalismo humanista da, tolerantzia, demokratikoa. Egia da errotik kondenatzen ditudan totalitarismo forma bortitzak hartu izan dituela mugimendu abertzaleak, baina ez naiz lotsa euskal abertzalea izateaz. Eztabaida anitz eta haustura sakona izan dut aitarekin gai horren inguruan. Trantsizio garaian, Euskadiko Ezkerraren inguruko tesiekin bat egin nuen nik, berak bere ikuspegi muturreko eta erromantikoekin HBrantz egin zuelarik. Inoiz errenditzen ez den soldaduak beti duela arrazoi aldarrikatzen zuen. Esaldi ederra da, baina herri baten errealitate sozio-politikoari aplikatzean berehala sortzen ditu txinpartak.

Erraza da lubaki hori Parisen defendatzea?

Afrusa da, zure buruaz beste egitearen hurrengo, iltzeen gainean zabilta etengabe. Orain izen eta oinarri gehiago dudanez, denek dakite zer naizen, denek dakite frantses ondare alimentarioaren defendatzaile sutsua naizela. Ez dakitena da euskal abertzaletasunak eraman nauela horretara. Aberri tiki batekoa naizelako dakit baloreak erraz desegin, ahuldu eta mudatu daitezkeela, eta Frantzia bezalako herri handi bat ere ez dagoela bere identitate nazionala, bere ondarea, galtzetik salbu. Horregatik diot abertzaletasuna ez dela norbere baitara ixtea, beste herrialdeei parez pare begiratzea baizik. Zapalkuntza faxista batean hazi naiz, Mussolini eta Hitler-ek instalatutako diktadura frankistaren giroan, gure aitak kontaktuak zituen Juan Ajuriagerrarekin zein ETArekin buruzagitzarekin, mugimendu abertzalearen elitea pasa da gure Ziburuko etxetik. Betitik jakin dut ohoratu beharreko abizena neramala, beti izan dut argi nondik heldu naizen, eta niretzat, demokratikoki gauzatzen bada, erabakitzeko eskubidea eskubide inalienablea da, Parisen, Madrilen eta Ziburun.

Politikaz ari gareno, jatea ekintza politikoa da?

Sekula baino gehiago. Euskaldunok inork baino hobeki dakigu elikadurak zenbat ezauga-

rritzen duen identitate nazionala. Hala, garai txundigarrian gaude, abertzaletasun alimentarioak bere zentzu osoa hartzen duen aroan. Elikatzeko dugun maneraren arabera egokitzen gara jendartera. Kontsumo jendarteak, industria alimentarioak eta publizitateak hiritarra kontsumitzaile bihurtzen du, populazioa erabat alienatuz. Edozer janarazten digute, gaituzten gaituzte, ingurua xehatzen ari dira... Borroka arantzatsu horren baitan, Normandiako camembert-a edo roquefort-a zaindu beharreko aberri txikiak dira, eta horrek bihurtzen du jatea ekintza politiko eta borroka iraultzaile. Masaren emantzipazioa elikadura gureganatze-rik etorriko da. Kontsumitzaileak libre kontsumitu behar du, ez du esku-sartzerik behar, ez du zertan baldintzatua eta formateatua izan. Izan ere, TF1-eko lehendakariak bere lana garunak Coca-Colaren zerbitzura ezartzea dela dioenean zer dio? Komunikazio eta sozializazio tresna handiena tresna merkantil, bankario eta komertzial bilakatu dela, eta jendearen kas-koan markak iltzatzea baizik ez duela xede. Lehen ikuslea bezero potentziala zen telebista-rentzat, orain helburu komertziala da. Emanki-zunen bidez gure garunak biguntzen dituzte, publizitatea labana gurinean bezala sar dakigun buruan. Hori libertatearen ukazioa da, nihilismo sozialaren aldaera dramatiko. Horregatik diot elikadura industrialak iritzi askatasuna murrizten duela, ardi bihurtzen gaituela. Horregatik aldarrikatzen dut elikadura libre eta sana. Nire kazetari lanaren funtsa kontsumitzaileak sistematik askatzean datza.

Kontsumitzen berrikastea da gakoa?

Jakina. Frantziako ondare eta elikagaien aniztasunaren %80a desagertu dela ikustean, derrigorrez jo behar dugu alarma, kontsumitzaileei gelditzen den %20a ezagutaraziz eta hori dastatzera bultzatuz. Horrek ondare hori mantentzen duten baserriak laguntzea, goratzea eta jendartearen muinean ezartzea esan nahi du, eta batez ere, kontsumitzaileek giltza heien esku dutela konprenitzea. Jen-

NORTASUN AGIRIA

Perico Legasse 1955eko martxoaren 21ean sortu zen Boulogne Billancourt-en. Marc Legasse (1918-1997) euskal anarkista eta abertzale ospetsuaren semea, Frantziako kazetari eta kritikari gastronomiko ezagunenetakoa da egun. *Marianne* aldizkari-ko erredaktore buruetako bat, zenbait aditu talde-ko kide eta liburu idazle izateaz gain, telebista eta irati programa askotan parte hartzen du. *Nos enfants nous accuseront* filmean janariaren pozoitzearen inguruko ikerketa daraman kazetaria da.



PERICO LEGASSE

deak ulertu behar du libreki erosi dezakeela, gatibutza dogmatiko eta komertzial horretatik aska litekeela, eta elikadura industrialak erosten duenero bere aurka egiten ari den alderdi politiko bat bozkatzeko ari dela. Iritzi publikoa interpelatzea dagokigu, sistemak ixten ez dizkigun ate eta mikroak okupatzea, eta orobat, botere publikoak konbentzitzea. Zentzu horretan, ezinbestekoa iruditzen zait heziketa alimentarioa lantzea eskoletan. Gaurko haurrak dira biharko kontsumitzaileak, eta publizitatearen diktaturak moldatutako makinak izatea nahi ez badugu umeen gustua hezi behar dugu. Jakin dezatela ekoizpen baten gibelean historia bat badela, jende batek gogotik izerditzen duela sanoki eta ingurumenaren errespetuan hori ekoizteko. Ongi janez salbatuko dugu lurra. Munduak ez du etorkizunik Mendebaldeko jendartera bezala elikatzen bada. Laborantza logika bankario eta finantzarioetatik askatzea da geroa.

Zer da gustu justua?

Gustuak dimentsio kulturala du. Produktu bat ona edo txarra izatea irizpide komertziala da, ausazkoa bezain subjektiboa. Hala, ekoizpen baten lehen bertutea justua izatea da, bere zilegitasun geografikoarekin bat egitea, lurraren berezko ezaugarrien arabera izatea, ingurumena errespetatzea, eta bere onena emateko gisan landu eta zaindua izatea. Ekoizpenak bere jatorriaren muturra behar du, hazi den lurraren eitea. Egia hori badarama zainetan, hastetik buru garbiki eta sanoki eginen du bidea, tokiko jende sareak errespetatu eta aktibatuko ditu, eta beraz justua izango da. Gainera, gauzak zer diren, irizpide horiek oro betetzen direnean ekoizpenak justuak izateaz gain, onak izaten dira.

Zure tesiak posible dira egungoa bezalako sistema ekonomikoan?

Jakina denez, egungo sistema ekonomikoa berehalako etekinaren antzian oinarritzen da.

Horrek, ezinbestean, kimika eta teknologia dakartza. Arazoa da sistema lehertzen ari dela, hazkunde demografikoa ukazina izanik, hazkunde ekonomikoak inposatzen dituen moldeek ez planeta ez demografia utziko gaituztelako laster. Hazkunde anker hori gelditu behar dugu, planetaren errealtatera egokitu, baina hori egungo merkatuen legearen aurkakoa da, gobernu politika eta munduko norabide ekonomiko nagusien kontrakoa. Hori gutxi ez, eta sistemak sarraila guztien giltzak ditu: azken hitzaren jabe da, xantaia gupidagabeen egile, gobernu politiken hariak zuzenki mugitzen ditu, esku beltz eta luzeen eragile da... Parean gaudenok fedea eta konbentzimendua baizik ez ditugu. Kontzientziak astindu eta aldatzea dagokigu, alta, oraindik ere industrialki elikatzen segitzen duten frantsesen %85-90a konbentzitzea. Industriak ongi jatea garestia dela badio, gaizki jatea garestiagoa dela erakutsi behar dugu. Horregatik da garaipen bat tokiko edo ekoizpen biologikoak kontsumitzera pasatzen den pertsona bakoitza.

Bide horretan, zergatik ez dute laborariek leku zentralagoa gure jendartearen?

Laborariak ordezkagarriak zirela sinestarazi digutelako. Mundu osoa elikatu nahi bazen ezin zela lurra betiko moldeetan landu zabaldu da lau haizeetara, eta lurrari eskuz lotu den laborariari "atzerakoa" edo "arkaikoa" etiketak itsatsi zaizkio. Are gehiago, azken 30 urte luze hauetan, munduko akats guztiak egotzi dizkie jendarteak nekazariei: erreakzionarioak, kontserbadoreak, elizkoikiak, negartiak, lapurrak, kutxatzaileak... Jendartearen sasoian sasoiko estigma guztiak leporatu zaizkie. Bestetik, sozialismoa eta landa eremua ez dira sekula ongi ezkondu. Elite intelektualak ere eboluzioa urbanoa dela aldarrikatu du beti. Baina orain jabetu gara nekazaritza ez dela gizateria elikatzea soilik, kultura, historia, ondarea, eta bizitzeko modu bat babestea ere badela. Aurrerapena baserritarra desagerra-



Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

AZKEN HITZA

Globalizazioa

“Tokiko ekoizpenak globalizatu daitezke. Dena dago eskala, erritmo eta sasoen errespetuan. Elikagaiak 5.000 kilometroz garraiatzea astakeria da, ez du zentzurik, kontua ez baita munduari itzulia ematea, munduan sustraitzea baizik. Hala, globalizazio ona badago, eta ez da bateraezina ingurunea zaintzen duen laborantza ereduarekin”.



raztea zela pentsatzetik gatoz eta produktua-
ren kalitatea lurraren errespetutik pasatzen
dela aldarrikatzera goaz. Horregatik ari gara
sozialismoa eta landa eremua uztartu nahian.
Egun, zinezko langileria bat baldin badago
nekazal langileria da, eta gainontzeko langile-
riei ematen zaien dialektika, onarpen eta tratu
bera eskaini behar zaie.

**Bitartean, laborariak ez, sukaldariak eta gas-
tronomia daude modan.**

Haien libertatea eta desberdintasun soziala
agertzeko, anitzi hori baizik ez zaielako geldi-
tzen. Mundializazio globalizatu edo globaliza-
zio mundializatuarekin ez dugu eskumenik
fenomeno bankario, ekonomiko, sozial eta
kultural handietan eragiteko. Derrigorrez pasa
behar duzu bankutik, derrigorrez ordaindu
behar dituzu zergak, derrigorrez bete behar
dituzu legeak, derrigorrez egin behar duzu
lan, baina oraingoan, inork ez zaitu derrigor-
tzen nahi ez duzunik jatera. Hala, anitzek kon-
prenitu dute nahi duguna jateko eskubidea
dugula eta askatasuna elikagaien hautuan
oinarritzen dela. Ohartu gara gaizki jateak
tristatzen duela, gaixotzen, jendartetik bazter-
tzen. Horregatik iruditzen zaigu ederra jaten
duguna ezagutzaz, adimenez, zein bokazio
kulturalaz jantzi eta partekatzea. Arazoa da
modak sistemaren atzaparretara zaramatzala
zuzenean, eta orain jatea ere ez dagoela *realit-*

jetatik salbu. Emankizun horiek elikadura
mailako sarraskiak dira, jateko askatasuna
publizitatearekin, irudiarekin eta markekin
alienatzen dutenak. Alabaina, emankizun eta
gida askotan ari dira informazioa operazio
mediatiko eta komertzial bilakatzen. Horiek
ez dute zerikusirik gastronomiarekin. Merka-
tuak eurenganatu eta publizitatea irabazteko
daude. Horregatik, sekula baino informazio
gehiago behar du kontsumitzaileak. Inoiz
baino garrantzitsuagoa da kazetarien lana.

Ohartzen gara jokoan dagoenaz?

Gauzak aldatu ezean, gustuaren bidezko
segregazio sozialerantz goaz. Kontsumitzaile
elite batek kontzientzia hartu eta bere
aurrekontuaren zati bat ongi elikatzea bide-
ratuko du, besteek sistemaren preso segitu-
ko duten bitartean. Ez dago beste erre-
mediarik, agian. Nork daki, baliteke elite batek
ongi jaten duelako, masan gatibu dagoenari
argia piztu eta eltzean sartzen duena zain-
tzen hastea. Nire helburua, dena den, denek
ongi, merke, eta sano elikatzeko aukera iza-
tea da. Ondare eta aniztasun kulturalak irau-
ten duen lekuetan jendea ongi hezten bada,
konbentzituta nago gizateriak
gauzak gaizki egiten segi ezingo
duen eguna helduko dela.
Orduan, agertuko da elikadura
justu, garbi eta libre bat. ■



INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

Ogiaren egia

Ogi biologikoak

**Harri errotan
xehetutako
irinarekin
egindako
ogiak**

Orantza ogiak

**Galparsoro
OKINDEGIA**

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074
www.galparsorookindegia.eu

FUKUSHIMA

Ebakuatuen oinaze isildua

Bizitokia utzi behar izan zuelako depresioak jota bere buruaz beste egin zuen anderearen kasuak eta familiari emango zaion kalte-ordainak jarri gaitu udan Fukushima begira. Eremu hartatik ebakatu zituztenen ezin bizia dugu lehen planoan.

| JOXERRA AIZPURUA SARASOLA |

IA HIRU URTE ETA ERDI igaro dira Fukushima zentral nuklearra lehertu zenetik. Lehen egunetan informazioa nonahi topatu genuen eta telebistaz leherketaren berri zuzeneko irudiez eman ziguten.

Lerro eta iritzi ugari eman genuen munduko aldizkari guztietan denok. Hilabeteek aurrera egin ahala hango berriak eta irudiak urritu egin ziren, tokitako gerrekin gertatu ohi den antzera. Abuztuaren amaieran hango berri zipriztin batek Europako berri emaileen arreta bereganatu zuen, alegia, etxea utzi behar izan zuelako, bere buruaz beste egin zuen andere baten familiak 358.000 euro inguruko kalte-ordaina jaso izanak.

Hamako Watanabek bonzo moduan eman zion su bere buruari, eta ez da hondamendiaren osteko depresioaren ondorioz suizidiora jo duen bakarra. Izatez, kopurua hazi egin da aspaldion, ehundik gora izan litezke, baina kasuz kasu frogatu behar direnez, ia ezinezkoa izango da zenbaki zehatzak ematea epe motzean. Alabaina, ingurua apur bat aztertu zuten adituek aski argi utzi zuten: hango jendeari erradiazioak berak baino kalte handiagoa egin ziola ebakuazioaren estresak. 150.000 lagun atera zituzten beren lurraldetik ezbeharrak gertatu zenean. Horietarik herenak etxetik urrun eta behin-behineko babestokitan jarraitzen du oraindik.

Arakutzen aritzeko ohitura duenak ordea, aurkitzen du hango informazioa ateratzeko biderik. Antza, AEBetako armadako kideen arteko transmisioetan sarritan agertzen da eremu haietako erradioaktibitatearen aipamena. Zentral nuklearreko ur erradioaktiboak itsasoratzen jarraitzen du, eta kontrol ezaren



Hamako Watanaberen alarguna, Mikio Watanabe, emaztearen argazkia eskuetan duela.

eragina gero eta handiagoa da, kaltetutako eremua gero eta zabalagoa. AEBetako mendealdeko itsasertzearino heldu da erradiazioaren hazkundera. Migrazio luze-ko arrainak, hegaluzea kasurako, erradiazioaren garraiatzaile bihurtu dira, Fukushima prefekturan gero eta mutazio genetiko gehiago gertatzen zaizkie animaliei eta landareei. Zentral nuklearreko urak gelditzeko izotzezko estaldura eraikitzen hasi ziren duela

bost hilabete, baina bertan behera utzita dago, izan ditzakeen ondorio txarren beldur. Tiroideko minbizia ugaldtu egin da gazteen artean. Adibide txikiak besterik ez dira.

Deigarria zait Japoniako gizartearen isiltasuna. Harrigarria zait hango oinazea gorde beharra. Hango jendarteak Hiroshima eta Nagasakikoa gertatu zenetik isilik jarraitzen duela uste dut. Duela 70 urte gertatutakoa eta Fukushima ez dira nahikoa izan gizartea eraldatzeko. Bonba atomikoek eragindako sarraskiaren ondoren energia nuklearrean oinarritutako herrialdea osatu dute, eta Fukushima, ordaindu beharreko zerbait gisa onartzen dela iruditzen zait, patu ekidin ezina balitz bezala, espanturik gabe pasa beharrekoa.

Esaten ari naizena gogorra da eta ziur naiz han ere kolore guztietako pertsonak izango direla, baina belaunaldi batek energia nuklearrekin bizitzeko erronkari heldu zion eta ezerk ez du belaunaldi zahar hura mugiarazi, ezta Hamako Watanabe 58 urteko emakumearen suizidioak ere. Tamalez, Japoniaren berreraikitze nuklearrak aurrera darrai. ■



Supermerkatuak egin eta egin, eta txikiak pikutara goaz

Kontxi Iribarren Villegas naiz, Iruñekoa. 61 urte ditut eta Alde Zaharreko Mañueta arrandegia ireki nuen orain 34 urte. Komertzio txikiaren gainbehera ikusten ari naiz mostradore honen atzetik.

DENBORA DA Iruñean lehenengo *hiper*-a ireki zutela, eta orduz geroztik bata bestean atzetik etorri dira. Astakeria handiak egiten ari dira oraindik ere, diren garaiak diren arren. Zenbat hazi da, bada, Iruñeko biztanleria azken urteetan? Ez da batere proporzionala egiten ari direna. Gustura jakingo nuke zer negozio dauzkaten atzetik, horrenbeste salgune handi egiteko ematen ari diren baliabide eta erraztasunak ikusita. Eta bitartean txikiak pikutara...

Oroitzen naiz nola igotzen ginen Arrotxapeatik Alde Zaharrera haur ginela; hura bizitza Kale Nagusian egoten zena! Denda txikiz jositakoa, jendea karrikan... Baina jateko modua ere asko aldatu da, eta horrekin batera, noski, erosketa modua ere bai. Askoz ere denbora gutxiago pasatzen da sukaldean orain. Momentuan, di-da egiteko produktuak eskatzen ditu bezeroak; garbitu beharrik gabe, kazuelaren aurrean hamar minutu baino gehiago egoteko betarik hartu gabe. Lehen antxoak kaxaka saltzen bagenituen, orain libra bat eraman dezaten garbitu eta txukun-txukun jarri behar izaten ditugu sarri, etxera iritsi eta eskuak zikindu ere egin gabe prestatzeko moduan. Jendeak ez du erosketak egiteko denborarik hartzen, eta asteko erosketa orokorraren ideia gero eta sartuago dago. Eta zer tentagarriagorik, astean behin leku bakarrera joan eta behar duzun guztia han edukitzea baino? Autoa atarian utzi, poltsa handiak zuzenean maletategian sartu eta berriz etxera buelta. Zer eta merkaturak lehertzen duten prezio merkeekin gainera!

Guk ezin dugu zifra horiekin lehiatu, baina prezio-kalitatearen balantzan gure produktuak merkeagoak dira, askok hala uste ez duen arren. Prezio merkeenak han dituztela?



"Zenbat hazi da, bada, Iruñeko biztanleria azken urteetan? Ez da batere proporzionala egiten ari direna. Gustura jakingo nuke zer negozio dauzkaten atzetik".

Jakina baietz, baina balantzan kalitate baxue-nekoarekin batera sartzen da hori. Komertzio txikiok ere ekarri ditzakegu horrelako produktuak, baina jokaldi txarra litzateke, bezeroak galduko baikenituzke; eta ez dut merkeago saldu litekeen arrainik ekarriko, bezeroari ezingo baitiot kalitate berri bermatu. Beste gauza askotaz ez dugu ideiarik izango, baina gureaz bai, gure ofizioaz badakigu eta datorrenari ahalik eta elikagai onena eskaintzen saiatuko naiz. Dendari txikiok horixe dugu eskaintzeko: gure produktua ezagutzen dugu, elikagaia manipulatzeko badakigu, bezero bakoitzaren gustuen jakitun gara eta gertutasuna eta konfiantza dira gure armak.

Gainbehera ikusten ari gara, bai, baina arazoak arazo oraindik ere irekita jarraitzen du Mañuetak eta hori herritarrengatik ere bada. Familia txiki baten modukoa da hau, baina familia guztiak bizi behar du, eta jendea gure arazoez jabetzea nahi badugu, guk eurenak ere kontuan hartu behar ditugu. Hala, azken krisi honen kontuarekin guk ere geure eskaintzak egiten ditugu, eta langabetuari, adibidez, %10eko deskontua egiten diogu erosketan.

Hiru bat urte geratzen zaizkit jubilatze-ko, eta azken egunera arte denda irekita mantentzen ahaleginduko naiz. Hortik aurrera, orain arte egin badugu, bizikio gara. ■





DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Giza elkarteak ala klubak?

UDARA GARAI BEREZIA da informaziorako. Aurtengoa ez da salbuespena izan. Berdintsu doa. Beharbada, esan daiteke bestetan baino sakonagoa izan dela; gertaera larri gehiagoren berri izan dugula, behintzat. Gertaera txarrak edo negatiboak: gudak, birusak, hilketak, liskar politikoak, iruzur larriak... Esandakoa: betikoa. Baina, aurten, nire oporretan, gertaera horien aurrean, beste hausnarketa bat egin dut: orokorra eta ezkorra.

Gehien errepikatu diren berrietan, gehien komentatu diren gertaeretan, arreta gehien eskatu didaten albisteetan, ezauzgarri komunak aurkitu ditut, lehendik sumatzen nituenak, noski, eta horietako bat azpimarratu nahi dut: giza elkarteetan baino, klub pribatueta antolatuta gaude gizakiok. Klubak, azken finean, interesak edota helburu komunak dituzten pertso-

Klub pribatueta antolatuta gaude gizakiok. Interesak edota helburu komunak dituzten pertsonen elkarteak besterik ez dira. Baina ez da hor amaitzen klubaren nortasuna. Klub pribatuak badituzte derrigorrez bete behar diren baldintza batzuk, batez ere, finkatzen diren kuotak garaiz ordaintzea eta onartzen diren elkarbizitzarako arauak errespetatzea

nen elkarteak besterik ez dira. Baina ez da hor amaitzen klubaren nortasuna. Klub pribatuak badituzte derrigorrez bete behar diren baldintza batzuk, batez ere, finkatzen diren kuotak garaiz ordaintzea eta onartzen diren elkarbizitzarako arauak errespetatzea. Horren truke, abantaila batzuk ere eskaintzen dizkiete kideei: elkarte edo gune itxia izatea, klubaren laguntza jasotzea horrela behar izanez gero eta beste elkarte eta pertsonetikiko "segurtasun tarte" mantentzea. Halere, klub guztiak ez dira, inolaz ere, berdinak; oso maila eta funtzionamendu desberdinetakoak daude.

Bada, hori da udara honetako gertaera potoloenetan hauteman dudana ezaugarri

komuna: gizakiok klub pribatueta antolatuta garela. Begira, bestela:

– Ebola birusa dela eta: ez dakit zehazki zenbat pertsona dauden kutsatuta Afrikan eta zenbat ari diren hiltzen egunero; horietako batzuk, oso gutxi, ipar-mendebaldekoak dira, hau da, ipar-mendebaldean jaioak edo hor bizi direnak. Bada, horien herrialdeek euren kutsadura ezagutu bezain pronto erreskatatu dituzte, ipar-mendebaldean eraman eta salbatzen saiatu dira. Nork daki zer dirutza gastatu den horretarako, baina zerbait argi geratu bada, niretzat, zera izan da: zure klub handiak lagunduko zaituela interesa baldin badago, baina, gogorra bada ere, zure egoera berberean aurkitzen diren zure beste elkarteak kideez ez da inolaz arduratuko. Hauxe gertatu da bi misiolari espainiarrekin: Espainiako Gobernuak haiek aberriratzearabaki zuen beren erlijio-ordenako beste misiolariak eta Liberiako herritarrak "ahaztuz". Hori da klub baten betekizuna ondo betetzea, hori.

– Ildo beretik doa Afrikatik Europara etorri nahi duten pertsonen istorioa; hor jarraitzen dute, hesi bat gainditu ezinik, klub fin batean sartu nahian, horretarako kuota handiegia ordaintzen ari direlarik. Baina gure kluba oso pribatua eta apartekoa denez, bada, sarrera ez da doan, ezta aukerakoa ere: zorte txarra izan du urrun eta beste azal kolorez eta txiro jaio denak.


– Badaude, baita ere, oso klub fineko kideak direnak, baina, ai ama!, dagokien kuota ordaintzea "ahaztu" dutenak. Edota klubeko kideak izateko baldintzarik gabeko eskubidea dutela pentsatzen dutenak, beraiek izan ezik beste taldeko kideek gastu komunak ordainduko dituztelarik. Hauek ez dute klubaren beharrik: beraiek dira kluba eta beste gainontzeko guztiak, beren morroiak. Pujol jauna, zer-nolako klubeko zer-nolako kidea izan nahi duzu?

– Badaude baita ere giza talde berriak antolatu nahi dituztenak, eta ezin. Ea zer sortzen den Katalunian eta Euskal Herrian; ea benetako giza elkarteak osatzen ditugun klub pribatuak baino. ■





ABUSTI



Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Udaberriko bozak gogoan

“LASTER, LANIK GABE geldituko naiz, eta atez ate hasi beharko dut lan bila; beharbada, zuen egoitzan ere utziko dut curriculuma”. Horra hor orain dela gutxi UPNko ordezkari kritiko batek oposizioko kide bati txantxetan errandakoa; txantxetan bai, baina etsiak joa, gaur egun Yolanda Barcinarekin bat ez datozen UPNko kideen aldartearen erakusgarri. Jakin badakite ez dela inola ere une egokia Barcinarekin lehian aritzeko, Barcinak alderdia soka motzean lotua duelako eta, jakina, UPNren behialako une gozoak lekutan daudelako, ahaztu gabe inork ere ez duela eskuindarren porrotaren aurpegia izan nahi. Eta ongi pentsatzera, eman dezala aurpegia Barcinak berak datozen hauteskundeetan, nekez osatuko baitu gobernua gogoz saiatu arren eta lehen indarra izan arren, zeren, PSNrekin ere ez baita gehiengo osora iritsiko; egia erran, ez sozialistekin, ez PPrekin (hutsaren hurrengo izateko kinkan baitago Nafarroan), ezta biekin ere. Horrelako burutazioak darabiltzate egunotan UPNko kritiko batzuek, eta are gehiago, haien itxaropen tikia ere aitortzen dute: udaberriko porrot-haizearen ufadak berekin eraman ditzala Barcina eta haren itzala behin betiko Madril aldera.

Hurrengo aldian bertze batzuek gobernua osatzen badute, “gu oposizioan gelditu eta nafar alderdia berregiten hasiko gara”, diote nafar sozialista batzuek. Jakin badakite, berriz ere iraganeko atakan egotera zer aginduko dieten Madrildik

Bitxia da, baina, nafar sozialista batzuek antzeko agertokia dute amets, hau da, Bildu, Geroa Bai eta Ezkerraren artean 26ra iristea edo, bertzela erranik, PSN deusetarako giltza ez izatea, hau da, sozialistek UPN eta alternatibaren artean berriro hautatu behar ez izatea. Hortaz, hurrengo aldian bertze batzuek

governua osatzen badute, “gu oposizioan gelditu eta nafar alderdia berregiten hasiko gara”, sozialista baten ahotan. Izan ere, jakin badakite, berriz ere halako atakan egotera, zer aginduko dieten Madrildik, eta hasieran espantuka eta gaizki erranka aritu arren, azkenean burua makurtu eta Madrilgo agindua zintzo-zintzo beteko dute. Itxura hutsa. Oroitu, bertzenaz, non dagoen gaur egun Roberto Jimenez, otsaileko afera hartan bereak eta asto beltzarenak erran ondoren: non eta PSO-Eren exekutiba berrituan, etorkinen saileko arduradun. Ez da sari makala. Harez geroztik, ez dabil ahobero.

Kontua da inor geldituko ote zaien nafar alderdian. Horra, beraz, etsipena gero eta zabaldua goa erregimenaren barnean; orain, benetako oposizioaren aldia da. Zortzi hilabete doi dituzte proposamen sendoak plazaratzeko. Geroak erranen. ■



XDZ



Joanes Etxebarria

KAZETARIA

Jaun txit gorenari

MUTIL DANTZA ez da mutilena. Dantza ez da mutilena. Bada bat, inguru hauetan, neskak dantzan ikustean mintzen dena. Maskarada egunez, barrikada etxe aitzinean plantatua badu ere, etxetik ateratzen ez dena. Emazteak dantzan ari direlako egiten du protesta ixila. Hondarribiko alarde mistoak parean duen plastiko beltza bezalakoa da, baina bat da, pertsona bakarra. Xiberoko dantzak neskei esker biziraun zuela onartu bai, baina ez ditu plazan dantzari ikusi nahi. Eta baditu bere arrazoiak, ni bezalako inkulto-axolagabeek ezin ditugunak endelegatu.

Berriki lagun batek iseka egin zion, erranez aurtengo pastorealean gehien maitatu zuena nesken dantzak zirela. Ez dakit

trufaka ari zen edo zinez hala pentsatzen zuen, baina ordainean, lagunak telefono dei bat jaso zuen berantago, pertsona hain ilustre horrek bi muturreko emateko gogoia ukan zuela erran nahi ziolako. Eta telefono kabletik pasa ziren bestelako mehatxuak. Lagunaren euskara mailaz kritikak. Hoa euskara ikastera. Herra.

Batzuk, kulturalki hain bizia den herrialde honetan, jaun txit gorenak dira. Ez dut izenik botako, Kabanaren estilokan, aipatua denak soilik bere burua ezagutu dezan. Eta jakin dezan (dezaten) hemen ere badirela alarde mistoaren aldekoak. ■





Aitor Agirrezabal

◆ ARGIAKO BLOGARIA

Erabakitzen duen herria herriagoa da

HILABETE ERDIA, 15 egun besterik ez, eta Eskoziak berebiziko erabakia hartzeko eguna izango du. Ez daukat ideiarik egun horretan eman daitekeen emaitzaren inguruan. Eta esango nuke inork ez duela batere argi. Kontrakoa dioenak...

Mila aldiz erantzun diot galdera berari: “Zer gertatuko da?”. “Ez dakit”. Erantzun argia. Inkestak bi norabide desberdinetan mugitzen dira, bi bide ezberdinetik datozen moduan. Alde batetik, hedabide unionista guztiek alde zabala ematen diote ezezko bozari, nahiz eta baiezkkoa gerturatu eta gerturatu dabilen. Bestetik, Radical Independence Campaignek burututako Mass Canvass edo atez ateko galdeketa, alde nabarmena da independentziaren alde. Azkenik, Panelbasek egindakoak ezezkoaren alde agertzen dira oraindik ere, baina oso alde txikiarekin. Hauek izan litezke azken emaitzara gehien gerturatzaren direnak, eta alde batera edo bestera izan, alde txikia izango dela egingen nuke apustu.

Baiezkoaren aldeko gorakadak bi pizgarri izan ditu azken aldian. Lehen, iragan abuztuaren 5ean Alex Salmond premier eskoziarrak eta kanpaina unionistako burua den Alistair Darlingek burututako telebista debata (hilak 25ean, bigarren bat izan da, BBCko kameran aurrean). Azkena, abuztuaren bertan piztu den debata, Osasun Zerbitzu Nazionalaren (NHS) inguruko eztabaida eta ezezkoaren garaipenak osasun zerbitzu publikoen galera ekar dezakeela.

Ezetzta gailendu liteke? Noski. Hori diote inkesta gehienek. Eta baiezkkoa? Noski. Aurrerapauso handiak eman dituzte eta inkestetan agertzen ez den jende asko joanen da irailaren 18an bere boza ematera.

Hala ere, ideia garbi bat atera daiteke. Ateratzen dena aterata, independentziak bere bidea jarraituko du. Boz batekin edo bestearekin independentziaren bidea ez da irailean amaituko. Galdeketa jende berri asko erakarri du politikara eta bere herria eraikitzeke lanetara, eta masa horrek, 2014an ez baldin bada, 2016an eraikiko du independentzia. Argi daukadan gauza bakarra da hau. Eskoziak hartu duen bideak ez daukala atzera bueltarik eta lehenago edo beranduago estatu independente bat izango dela.

Ezetzta gailendu liteke? Noski. Hori diote inkesta gehienek. Eta baiezkkoa? Noski. Aurrerapauso handiak eman dituzte eta inkestetan agertzen ez den jende asko joanen da irailaren 18an bere boza ematera

Gainera, legazpiar batzuen erruz (D-Pintxos) Euskal Herriak oihukatzen duen moduan, “Erabakitzen duen herria herriago bihurtzen da”. ■



• IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo



DANI BLANCO

Doinua: ETaren su-etenetik.



Oporrak kanpingeran

Gorputzak eta buruak bazuten haien desira ta oporrak egin ditugure beharren neurritara. Nafarroko kanping baten hogei egunez guztira orain kanpotik jarrita oporraldiai begira: eguneroko ohiturei so egitea aski da soziologo batek azkar aterako luke gida: kanpingeran ere lehengo mundu denak batzen dira.

Partzelan gosalduek edo tabernan barra gainea, ingurutara maitu edo beti leku jakinean, telebista batekin joan edo e-booka soinean, haurrekin denbora pasa edo askatu ring-ea, lentejak edo kostillak parrilarik haundinean, arropak garbitu edo ez; eta nork? Azken finean... Lehengo mundu guztiak batzen dira kanpinean.

Bikoteak haserretu edo erraz jarri ados, norberaz hitz egin edo beste denei adarra joz, oporrak dastatzen egon edo bukatzeko gogoz, dagonaz gozatu edo amestu gehiago askoz... Hutsune handien ispilu egi txikien altaboz oporretan iraultzarik ez da gertatu oraingoz: kanpineko mundu denak berriz gizartera gatz. ■

Eguneroko paisaia aldatzeko artea

Abuztuaren 28an hasi zen Getxo Photo. Irailean barrena, mundu zabaleko eta inguruotako 20 argazkilariren lanak egongo dira ikusgai Algortako kale, plaza eta aretoetan. Gai nagusia bat eta bera da denentzat: *Borrokak*. Argazkilari beterano eta ezagunak gazte eta berriak batu ditu Christian Caujolle komisarioak, zortzigarren edizio honetan.

| MYRIAM GARZIA |

FOTOKAZETARITZATIK eta dokumentaletik gertu dauden irudiek ez ezik, estudioan landutako argazkiek eta kontzeptualagoak izan litezkeen beste askok eraldatuko dute Bizkai-

ko herri honetako eguneroko paisaia. Hori baita Getxo Photoren ezaugarri nagusia: espazio publikoa erabiltzea. Ereaga hondartzako pasealekua, Algortako Portu Zaharreko kale estuak eta San Nikolas Plaza, besteak beste, argazki handien eta zenbait bildumen erakustoki bilakatuko dira hilabetez, herritarren eguneroko bizitza eta artea, edo kasu honetan argazkilaritza, uztartzeko ahaleginean. Ereagako Punta Begoña galerian paratuko diren bi erakusketa ditugu aurtengo berrietasuna. Francoren garaiko eraikin zaharrean, normalean itxita egon ohi bada ere, bisitaldi gidatuak antolatu dituzte, gaztelaniaz eta euskaraz.

Borrokak, amets kolektiboak

Getxo Photoko zuzendari eta argazkilaritza jaialdia antolatzen duen Begihandi elkarteak kide den Jokin Aspuru halaxe dio: “Kultur ekintzaileak gara. Kultur elkarte garenez herria dinamizatzea dugu helburu, aztoratzailerak gara –barrez–, eta herriko beste eragile batzurekin (tabernariak, merkatariak...) lan egin nahi dugu, Artea herriratzeko eta herrikoitzeko. Azken finean, jaialdiaren bidez nahiz antolatzen ditugun beste ekimenen bidez, herrian gogoeta bultzatzea dugu helburu”.

Begihandi elkarteak 20 bazkide ditu, eta ez dago argazkilari profesionalik euren artean, baina kultur elkarteak argazkilaritza jaialdia antolatzeko xedez sortu zen duela 8 urte, “herriatik herrirako lan egiteko”, Jokin Aspuren hitzetan.

Iaz *Ametsak* izan ziren Getxo Photon erakutsi ziren argazki lanen gai nagusia. Aurtengo kontzeptu horrek bilakaera izan du, eta *Borro-*





kak izango da erakusketa osoaren haria. “Azken finean, borrokak amets kolektiboak dira. Borrokak dituen alde guztiak irudikatu nahi izan ditugu: bizirauteko borroka, herrialdeen artekoak, duintasunaren aldekoak, emakumeen berdintasunaren ingurukoak, lan borrokak, justiziari lotuak...”, azaldu digu programazio arduradun Jone Zubiagak.

Christian Caujolle frantziarrak hautatu ditu argazki eta serie guztiak. Bigarren aldia du –hiru urtetik behin aldatzen da komisarioa–. Hainbat hitzaldi, ikastaro eta erakusketaren antolatzailea, kritikaria, egun Kanbodiako PhotoPhnomPenh jaialdiko zuzendaria ere bada. Parisen eta Kanboian bizi da. Beraz, Asiako argazkilaritza ondo ezagutzen du eta, nabarmena da aurtengo jaialdiko programazioan. “Ekarri dituen argazkilari asko pertsonalki ezagutzen ditu, eta gertutik jarraitzen du haien lana” dio Zubiagak.

Argazkigintzaren helburua, salaketa

Besteak beste, Maika Elan (Vietnam, 1986) argazkilariaren *The Pink Choice* argazki bildu-

The Hijad Series,
Boushra
Almutawakel.

ma ekarri du Caujollek Getxo Photora. Elanen argazkiek eguneroko bizitza eta intimitatea dute funtsa. Bilduma honetan, Vietnameko bikote homosexualen etxeetan sartu eta hauen egunerokotasuna jaso du bere argazki kameraz. Adin eta klase sozial desberdinetako bikote homosexualak ageri dira bere irudietan, eguneroko zereginetan.

Beste parte-hartzaile bat, Yemengo Boushra Almutawakel (Sana’a, 1969) dugu, bere jaioterriko unibertsitatearen arabera, herrialdeko lehen emakume argazkilaria.

Almutawakelek *The Hijad Series* izendatu duen lana erakutsiko du Getxo Photon. Yemeneko emakumeei eta beren alabei ateratako argazkiak biltzen ditu lan horrek. Zapia erabili behar izateagatik, emakumeok ikusezin nola bihurtzen diren eta prozesua nola den azaltzen du batik bat.

Munduko borrokek edo gerrek, Irakekoak edota Ukrainakoak adibidez, toki bana izango dute jaialdian, fotokazetaritza lantzen duten argazkilarien eskutik. Edouard Beau (Nevers, 1982) argazkilari frantsesak, *Yanni, Irak Etat des Lieux* izeneko bilduma ipini du ikusgai. 2012an eta 2013an Iraken bizi izan zen Beau. 10 urteko okupazioa jasotzen duten argazkiek osatzen dute bere bilduma.

Martí Llorens (Bartzelona, 1962) kataluniarrek beste borroka bat ekarri du Getxora: 36ko Gerra. Memoria, denbora eta lurraldetasuna batzen ditu bere *Memorias Revolucionarias* erakusketak.

Kosorukov errusiarrak lan eskubideen aldeko borroka jaso du *Gleb Heroes of Labour* izenburupean. Errusiako Shkarov meategiko langileen irudiak dira oro har. Meategitik atera berritan, zikin eta akituta ageri dira protagonistak. Heroi kutsua eman die argazkilariak.

Badira zeinbait argazki gaiagatik oso gordinak egingo zaizkigunak. Kasura, *Abu Ghraib* izeneko bildumakoak. Abu Ghraib Iraken dagoen espetxea da, preso politikoak



torturatzeko baliatzen zuen Saddam Huseinek. Gerora, gartzela erraldoia estatubatuarrek hartu zuten agindupean. Argazki bilduma honetan, 2004an *The Washington Post* eta *The New Yorker* medioetan argitaratutako argazkiak bildu dira, non torturatzailleek tortura saioetan amateur gisa ateratako argazkiak ikus daitezkeen. Kartzelan jasandako torturak ageri dira irudietan, hala nola, elektrodoen erabilera, tortura eskatologikoak eta sexualak, eta presoak txakurrak bailiran lotuta. Errealitate gordina baina benetakoa, giza-kiaren alderik ilunena azaleratzen duena. Salaketa da nagusi erakusketa honetan.

Euskal Herriko argazkilariak ez ditu ahaztu Getxo Photok. Hala, Mikel Bastidak (Bilbo, 1982) *War Theatre* bilduma erakutsiko du, eta Jesus de Etxebarriak (Bilbo, 1882) aurreko mende hasierako argazkilari aitzindaria: Gernikako bonbardaketan ateratako argazkiak izango dira ikusgai 3D formatuan. Gainera, ELA sindikatuaren argazki artxiboa ere erakutsiko da. 1911n sortu zenetik, sindikatuaren mende osoko historia, beraz, argazkitan.

Bisita gidatuak, ekitaldi bereziak...

Fotokazetaritzari eta foto dokumentalei ere tokia egin nahi izan zaie. Ildo honetatik, argazkigintza eta kazetaritzaren arteko erlazioaz hitz egiteko, Walter Astrada (Argentina, 1972) argazkilariak *master class* deituriko ikastaroa eskainiko du. Astrada Word Press Photo sariaren irabazlea izan da hiru aldiz. Argazki erreportajea nola egin izango du mintzagai.

Bestalde, Itxialdia eta hitzaldiak, argazkilarien arteko topaketa eta elkarlana bultzatzea xede duen egun osoko jarduna ere antolatuko dute Getxo Photoko lagunek. Halaber, Gauplaza izeneko ekimena ere antolatuko dute. Jon Cazenave, Txetxu Berruezo, Asier Altuna, Javi Julio, Olmo Calvo, Pilar Aymerich, Anna Turbau, Humberto Bilbao eta Clemente Bernad argazkilarien lanak proiektatuko dituzte *Beste borroka* izenburupean, gauez, San Nikolas plazan.

Argazkiak, herriko tabernetan eta dendetan, nonahi. Kasu honetan, herriaren partaidetza bultzatzea da helburua. Argazki zale-tuek bidalitako fotoen aukeraketa egingo da, eta horietatik 30 dendetako erakusleihoetan erakutsiko dira. Tabernariak Kanboiako Mark Remissaren *Fish and Ants* lana erakutsiko dute, baso-azpikoak inprimatuko baitira edizio mugatuan. Irailaren 13an, Photowalk izeneko ekimena burutuko da eta asteburuetan bisita gidatuak egingo dira Algortako metro geltokian, hango erakusketa iraunkorra ezagutzera emateko. ■





Ezkerrean goian:
The Pink Choice, Maika Elan.
 Ezkerrean behean:
Ratanakiri, Pha Lina.
 Goian: *Horror in Pink*,
 Manit Sriwani Chpoom.
 Eskuinean:
Memorias Revolucionarias,
 Martí i Llorens.
 Behean:
War Theatre, Mikel Bastida.



Helduen Literatura

Pendrive
Arrate Mardaras.
Susa, 2013



Idea ona, baina...

PENDRIVE izeneko narrazio sorta edo ariketa literarioarekin estreinatu da Arrate Mardaras (Abadiño 1960).

Demagun editore batek uesebe bat aurkitzen duela bulegoko mahai gainean, eta ez daki nondik ezta nola heldu den ere. Jabe hipotetikoak eduki zitzakeen proiektu desberdinen piezak aprobetxatuz, editore narratzaileak bere edizio pertsonala osatuko du barnean dagoen materialarekin. Emaizta: *pendrive* galdu bati buruzko hipotesiak, Sinda izeneko emakume bati buruzko pasarteak eta ohar linguistikoez, nahiz eta ez beti, lagunduta datozen zenbait narrazio solteen *kopiatu/itsatsi* eran egindako muntaia da irakurleari eskaintzen zaiona. Edo inpresio hori izan dut nik behintzat.

Egia aitortzearen liburu honek deseroso sentiarazi nau hainbat momentutan. Irakurtzen ari nintzela zalantzan aritu bainaiz ez ote zen izango nire gaitasun ahulagatik, barne egituraren kohesio falta zela eta, edo liburuak berak duen konplexutasunagatik, pasarte ugari behin baino gehiagotan irakurri behar izan ditudala, bidean zerbait ahaztu dudarenentsazioa neukalako. Atalen arteko batasuna aurkitzen saiatu naiz etengabe, bata besteari egiten dion mesedea aurkitu nahi izan dut, collageak zentzua har dezan, baina, nire zoritxarrrako, arrakastarik ez.

Azkenik, existitzen ez den zerbaiten bila nenbilerla ondorioztaturik izenburuari erreparatu diot: *Pendrive*. Ez al da hura kohesiorik gabeko fitxategiak, piezak, gorde eta mantentzeko instrumentu bat? Ez al du horrek ere liburuarekin zerikusirik? Ez al dira biak hitzen memoriarako gordailuak?

Zentzu horretan originala iruditu zait Literatura kontsideratzeko proposamen berritzaile hau, baina tratatzeko modua iruditzen zait liburuaren puntu ahuletako bat. Halako instrumentu baten edukia nola edo hala papereratu izana da, ene ustez, ideia jeniala birrindu duena. Are gehiago, nik esango nuke, publikoaren interesetatik at dagoela.

Gustuak eta irakurle mailak alde batera utzita, gizakiari istorioak entzun zein irakurtzea gustatzen zaio. Eta paperezko pendrive honetan sei narrazio aurkitzen ditugu beste testuekin erlaziorik ez daukatena. Historiako garai eta testuinguru oso desberdinetan gertatutako maitasun istorioak dira, non, tronpatzen ez banaiz, gehienek duten gerra eszenatoki. Narrazio horietara mugatu izan balitz baliteke bestelako emaitza eduki izana, baina kasu hipotetikoan mintzo gara. Orainaldian esatearren, lehen ariketa literarioa da Arrate Mardarasen *Pendrive*. ■

Saioa Ruiz Gonzalez








Nor nahi zoazela. Nor nahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkora duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Nola bizi seriezale amorratu batekin

SERIEZALE AMORRATUOI atal bat bestearen jarraian ikusteko egun osoa etxetik atera gabe egotea normala iruditzen zaigu. Baita lagunekin edo familiakoekin genituen hitzorduei uko egitea ere, asteko atalari hutsik egin nahi ez diogulako. Walter white, Desmond, McNulty edo Tony Soprano hurrengo astean zer gertatuko ote zaien ez dakigulako, lorik ere ez egitea. Edo gure telesail gustukoenak Emmy saria eramango duen ala ez jakiteko gupasa luzeak egitea.

Guretzat “naturala” da, baina gurekin bizi den jendearentzat, —eta demagun 20 telesail batera ikusten ez dituztenentzat (hemendik aurrera “jende arrunta” deituko diegu)— zerbait arraroa edo ezohikoa da. Kondairak dio seriezaleak eta pertsona arruntak bizi litezkeela elkarrekin, badirela zenbait kasu munduan. Ez da erraza, baina ba omen daude.

Zaletasun kontrolaezin hori jasan behar duzeun tokian jartzen saiatuko naiz, eta bide batez, ea gai zareten gure bitxikeriak ulertzen. Ziur nago terapia erabilgarri bihurtuko dela. Bide batez, elkarte bat sor dezakezue: “Kaixo, nire izena Tamara da eta ni ere seriezale batekin bizi naiz”.

● **Asteko egunik okerrrena, guretzat onena... “Azkenean iritsi da astelehena”.** Bai, aukera asko dago astakeria hori seriezale baten ahotik entzuteko. “Jende arruntari” erokeria iruditu arren, guretzat, astelehena egunik gogokoenetarikoa da. Argibidea oso erraza da: AEBetako hainbat telebista katek arrakasta handien duten telesailak igandeetan emititzen dituzte. Hori dela eta, astelehenetik aurrera dauzkagu ikusgai hemen (*The Walking dead*, *Homeland*...). Astelehena, ustegabeko egun zoragarri hori.

● **“Beste atal bat eta banoa lotara...”.** Zenbat aldiz entzungo zenuen esaldi hau goizeko 2:00etan? Berdin dio hurrengo goizean, 8:00etan esnatu behar izatea. Gupidagabeak gara. *True detective*-ren maratoi baten erdian baldin bagaude, ea nor ausartzen den esaten telebistak hor jarraituko duela hurrengo egunean eta uzten dugun puntutik jarrai dezakegula. Atalak ikusi eta ikusi arituko gara atsedetik gabe, munduaren amaiera iristear egongo balitz bezala. Eta apokalipsia iritsi baino lehen, behar dugun lehenengo gauza atala nola amaituko den jakitea da. Soluzioa? Onartu, oherako bidea bakarrik hartu beharko duzue. Edo bestela esna eutsi leher egin arte, eta hurrengo egunean begi-zuloen kontrako krema erabili.



● **Elkarrekin ikusten duzuen telesail baten atala, bakarrik ikustea desleialtzat hartuko da.**


Lost elkarrekin ikusten baduzue, atal bat zure kabuz ikustea hondamendira eramango zaitu, eztabaida erraldoi eta kontrolaezin batera. Ezta bururatu ere!

● **Bizitza soziala, zer da hori?** Telesailak ikusten inbertitzen den denbora, beste edozeri eskaintzen ez zaion denbora da. Momentuz lan egitea beharrezkoa da guztiontzat. Bestalde, badaude zeregin saihestezin batzuk, lo egitea adibidez. Beraz denbora hori beste nonbaitetik “lapurtu” behar da: bizitza soziale-tik. Zuk, pertsona arrunt horrek, esango duzu: “Eguraldi bikaina dugu, joango al gara lagunekin paseatzera?”. Gure erantzuna: “*Sons of anarchy* ikusten ari naiz eta Jax Teller irlandarrarekin tratua ixteko zorian dago, benetan uste al duzu gogoia dudala horretarako?”.

● **Jarrai ezazu (gutxienez) ikusten dugun telesail bat, elkarriketetatik kanpo geratu nahi ez baduzu behintzat.** Lagunekin zaudenean, elkarriketeta telesail baten ingurukoa bada eta kasualitatez jarraitzen ez baldin baduzu, estralurtar sentituko zara. “Ikusi al duzu *True Detective*-n plano zoragarri hori?”. “Ezin dut sinistu ere egin *Breaking bad* nola amaitu den...”. Elkarriketeta hauen guztien parte sentitu nahi baduzu, egin dezakezuen gauzarik onena gutxienez telesail horietako bat jarraitzea da. Bestela zertaz hitz egin zenuen mundu guztiak “*Game Of thrones*-en ezkontza gorria” aipatzen zuen bitartean? ■



Gaizka Izagirre



Euskal Herria ezagutuz

IZURA (NAFARROA BEHEREA)

Bide gurutzean

Oztibarre ibarraren bihotzean kokaturiko Izura aitzineko garaietan hiri gotorra zen. Aitzakia bat baino gehiagorengatik, askok Izurako gozotasun lantsuaren dastatzeko parada zeukan.

Gurutzune miresgarri batean da. Historia luzearen arragoa dela erran genezake. Larre berdeak, bide bihurriak, mendi mazela eztiak, ardiak eta behiak denetan alhari, ibiltariak han eta hemen: paradisu antzekoa da Izura gaur egun ere.

Testua eta argazkiak:

| ITXARO BORDA |

IZURA MUINOAREN MALDAN bihika-tzen da 200 biztanleko herria. Eñaut Etxamendirekin bikotean kantari ibili Eñaut Larralde zenak ez zuen beste leku aberatsagorik ezagutzen munduan. Oztibarre aldean oparotasuna, alabaina, ez da diruz bakarrik neurtzen. Harrerara-

ko oinarrizko jaidurak, hitzak urra-tuz solastatzeko kemenak eta arrai-leriaz azpatatutako irrirako tiriak sartzen dira eguneroko gozotasuna-ren balore erantsiaren osatzeko.

Ageri du betidanik atzeritar eta ezezagunekiko harremanetan tre-batua dela izuratarra. Soihartzeko

kaperatik jaistean Compostelarako beilarien GR-65 xendran agurtuko duzun Haranbeltzeko lehen labora-riak jakin nahiko du nondik zato-zen, zakua bizkarrean, eta euskal-duna zarela ohartuko denean, ez urrunekoa gainera, noka hitz egiten hasiko zaizu. Badakizu orduan zehatz nongoa zaren. Bideak elu-rrez zuritu Añamendien haraindi-ra eramaten du, Nafarroako lurre-tara, hegoaldera, Espainiara kanta zaharrak lerrakeen bezala. Gorata-sun apaleko eremuetan hedatzen da Arhantsusi, Ostankoa, Uharte Amikuze, Landibarre, Larzabale, Arroze-Zibitze eta Jutsi auzo dituen Izura.

Biduze erreka dabilkio oinetan. Arbailetakoa Eltzarreko ordokia duela iturburu eta harpe, ibilerako lehen kilometroetan ibai salbaia, hertsia bakanetan, laparrez setia-tua, kasik kokina, prestutzen doa Izura behean nagitzen ikasten duenean. Aturri handira botatzen ditu Oztibarre eta Amikuzeko urak Gixune parean. Iparretik hegorako ibiltari oldeen gidaria zen Biduze. Horregatik agian euskaldunek uztartu Hozta eta Ibarre eleak gas-



Soihartzeko basiliza.



Gibraltarreko gurutzean (ezkerreko argazkian) Donejakuerako hiru bide elkartzen ziren: Tours, Vezelay eta Le Puykoa. Christiane Giraud zizelkariaren 1998ko obra bat dago gunearen azpimarratzeko, eskuineko argazkian ageri dena. Donapaleuko auzoa da Gibraltar, Izuratik oso hurbilekoa.



koiek hiri nagusia izendatzeko Ostavath bihurtu zuten, frantsesek Ostabat ahoskatu zuten arte. Donapaleu eta Garazi lotzen dituen errepidetik bazter dago Izura, lasaitasun ikaragarrian.

Euskarari atxikia

Izura-Azmeakoak laborantzatik bizi dira: ardien hazkuntza, manexak oroz bat, esnea eta etxean egin gazta, behi gorrien haragia, barazkiak, artoa eta bazkarako landareak ekoizten dituzte. Baina ez bakarrik. Mendetako ohiturari jarraikiz, beilarien eta bidaiarien hartzeko aterpetxe ugari kausitzen da. Erran gabe doa halaber Izura euskarari zinez atxikia dela: bertan erroten da Haize Berri kultura elkarte. Gainera ikastola bat da: Lartzabalen dago Ibarlako poeta zenaren omenez Manex Erdozaintzi-Etxart bataiatutako Seaskaren kolegioa eta, gerezia gerezitegi, jendetzaren %96k euskara erabiltzen du.

Izurako herri-bihotza hiru zatitan banatzen da. Lehenik Irizola, oinez hurbiltzean zeharkatzen den lehena, zakur alimaleen zaunka

artean. Ospitaleak eta harrera tokiak hor ziren, eta dira oraindik. Zergarik ez zen hor ordaintzen. Birjinari eskaini putzu baten ondotik segitzen da eta nahi baldin bada iturri mirakulutsuan egarria idortu dezakegu. Gero, Hiriberria, sarrera eskubidea pagatuz trabeskatzen zena. XII. mendean eraiki zen, bas-tida moldean, 1228an Antxo Azkarren armadek suntsitu zituzten

Nabari da munduaren muin-muinean sustraitzen dela Izura. Jendeak aska samur horietan laketuak dira aspalditik ezen Gaztelu Zahar mendixkan historiaurreko Dordoinan eta Galizian zorroztu silexak atzeman baitziren

harresiz inguratu. Hiri garaikidea azkenik, XVII.etik hona altxatua, herriko etxea gerizatzen duen merkato estalia eta eliza neogotiko ikusgarriarekin.

Hiru auzotan ebakitzen da base-ri gunea ere: Izura bera, Azme eta Haranbeltz. Latsagako jauretxea ageri da alde guztietatik larre, pen-tze eta elgeen erdian. XIII-XIV.ko

etxe gotorraren hondarra bistan datza, sarrerako dorre ederraz hornitua. Protestanteen eta katolikoen arteko gerra gogorren karietara errea izan zen.

Donejakuerako hiru bideren elkargune

Nabari da munduaren muin-muinean sustraitzen dela Izura. Historiaren uholde bakoitzak hatzak edo herexak utzi dizkio. Jendeak aska samur horretan laketuak dira aspalditik ezen Gaztelu Zahar mendixkan historiaurreko Dordoinan eta Galizian zorroztu silexak atzeman baitziren. Beranduago Antonin erromatar enperadorearen mapetako puntu garrantzitsua zen Izura, Garona eta Ebro lotzen zituen ibilbidean hain zuzen. Erdi Aroan, aldiz, Landetako urmaelak pasatu ezinak zire-lako lurren barnealdeko Donejakuerako hiru xendra Izuran biltzen ziren: Tours, Vezelay eta Le Puykoa. Christiane Giraud zizelkariaren 1998ko obra bat dago gunearen azpimarratzeko.

Nafarroako Erreinuaren garaian are handiago zuen Izuraren indarra eta itzala. 1381ean Karlos II.ak



Izurako eliza eta frontoia.

azoka baten antolatze baimena eman zion. Nafarroako erlijio gatazketan, erran dugunez, Izurak, beste hainbat hiriren antzera sua dastatu zuen. Bakea etortzean, 1604an, Henri III.ak izuratarrei feria bat urtean bitan egitea zilegitu zien.

Iraganeko aberastasunaren aztarna

Etxeen bortatxeak begimenez ageri da herriaren iraganeko handitasuna. Baserriak pausatuak dira, hegats eta teilatu gorriekin, sarrerako atearen gainean marmol grisezko harriaren jabearen izen-deiturak, eraikitze urteak eta zenbaitetan otoitz baten zatiak irakurtzen ahal direla. Aberastasun horrek irauten du gaurkoan ere, etxeak leheneko ereduarekiko fidelotasunez altxatzen baitira.

1841ean Izura eta Azme bateratu ziren eta geroztik elkarrekin doaz. 1481eko Baionako kartularioetan

agertzen da Azme izena. Hasieran Azpe, hau da haitz pe, zitekeen lekuko mihietan. XV. mendean hamar etxe zenbatzen ziren, jende gutxi zegoela betidanik alde horretan. Azme eta Izuraren artean dago Nafarroako Gorteetan parte hartze eskubidea zeukan Latsaga

Hiru gerrak, laborarien exodoak eta nekazaritzaren mekanizatzeak hustu zituzten Izura-Azmeko bazterrak

egoitza noblea. Frantziako Iraultza denboran Azmeko elizako ondasunak ebatsi ziren eta, iturri fidagarriek diotenez, orduko 447 liberaren trukean saldu. 1841eko ekainaren 13an egin zen uztartzea. 1995ean Oztibarreko ikastola Azmen ireki zen.

XIX. mendean Napoleon III.ak Landak idortu eta kostaldeko bideak erraztu zituen. Ordutik, astiro, Izuraren burbuila eta garrantzi ekonomikoa menderatuz joan zen. Hiru gerrak, laborarien exodoak eta nekazaritzaren mekanizatzeak hustu zituzten Izura-Azmeko bazterrak.

Picaud eta izuratarrek

Poitou samurreko Aimeric Picaud XII. mendeko fraideak ez zuen guk dugun bezain iritzi baikorra Oztibarrez idatzi zuenean. Bordenetik zetorren, Landetako intaltzak, otsoen trakako abere beldurgarriak eta ulu beltzez mukurak, Amikuzeko oihan trinko izugarriak pairatu ondoan. Izuraratzean milagarren aldiz zerga ordaintzera behartua izan zen. Irudika dezakegu mendeek higatu ez duten testuan bere nardatze eta haserrearen isuri zuela. Beilariaren Gidaliburua kometitu zuen Kodex Kalixtinus haren bosgarren kapitulua zatekeena.



EVILLAFRUELA-CC BY SA



Haranbeltzeko inguruko bi argazki. Ezkerrean basiliza, eskuinean hilerria.

Picauden arabera euskaldunek eta nafarrek, bereizten zituen hizkuntza eta ohitura antzekoak zeuzkaten arren, ez zuten pilixkarik balio: bekatorosak ziren, itsusiak aurpegiz, lizunak, astoekin barne, biziosoak, mozkortiak, ebasleak, lotsatiak, aldakorrek eta lakastak baino gaiztoagoak. Euskaldunen fama ez zuen ondu. Egia zen Izurako zerga biltzaile zatarrak zirela, agoten kastakoak gehienak, dirurik ez zuten nekazariei sosa maileguan ematen zietenak.

Zena zelakoa Izuran beilarien hartzeko egitura egokitua zegoen: tabernak, ostatuak, era guztietako artisauak, dendak ezen milaka ibiltari agertzen baitzen herriaren atee-

tan: beilariak noski, bai eta merkataria, lagundikoetako kideak eta soldaduak. 1350ean hamabost bat aterpetxe zenbatzen ziren, hogei taberna eta hiru ospitale: San Antoni, Santa Katalina eta San Nikolas Haranbeltzekoa.

Beilari hartzaila oraino

Ukigarria da egiazki Soihartzetik Haranbeltzera heltzea. Haritzen erdian aizolbetu lau etxe dira eta aspalditik konpontzen ari diren XII-XIII.eko basiliza bat, egundainokoan liliztatua den hilerri distiratsuz setiatua. Ospitalean artatzen ziren ibiltariak eta eritasun luzeagotarako lauzpabost ohe zeuden eskura. Tokiko laborari-jabeek

kudeatzen zuten, eta dute dagoeneko, elizatzaren egunerokoa.

Euskaldunen ospea hobetuz joan da, menturaz. Gibraltartetik Izurako norabidea finkatuz, beilariak trumilka iragaten dira oraindik martxotik azarora eta Izurako biztanleek ez dute galdu ibiltarien errezibitzeko gustua. Hargatik, ez da bide zergarik ordaintzen.

Oinez bederen. ■




Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.


- Abentura kirolak
 - Ezkonurreko agurrak
 - Familiarteko jarduerak
 - Abentura bidaiak
 - Material tekniko alokairuak
 - Eta askoz gehiago...

San Juan 18 - Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com

MAGNUS MANSKE-CC BY SA



Igerilekuan saio-
txoa egin eta gero,
kiroldegian dutxa-
tzen ari nintzela
honako elkarrizketa
hau entzun nien bi
gazteri:



- Ander, hire xanpua pasako?
– Baina hirea hortxe duk eta!
– Bai, baina ekarri duda-
na ile lehorrerako duk eta orain bustita zeukaat!

[illegible]

Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI

Gailu elektrikoak birziklatzeko araudia zorroztu du EBk

ABUZTUAREN 22AN argitaratutako dekretoaren bidez, Europar Batasunak aldatu egin du ingurumen arloko 2012ko araudia. Aldaketa horren arabera, ekipamendu elektrikoaren banatzaileek —ez denek— doan bildu beharko dituzte erabilitako gailu txikiak, eta erabiltzaileak ez dira derrigortuta egongo ezer ere erostera.

Hondakin elektrikoak biltzera behartutako banatzaileak 400 metro koadrotik gorako gordailuak dituztenak baino ez dira izango. Bildu daitezkeen gailu elektrikoaren tamainari dagokionez, luzerak edo zabalerak 25 zentimetrotik beherakoak beharko dute izan; beraz, telefono eramangarriak, tabletak, ogia erretzeko labeak, jolas txikiak... jaso beharko dira aipatu eran.

Egun, gailu elektrikoak bi heren errefusa gisa hartzen dira, hau da, ez dira berrerabiltzen. Munduan 50 tona gailu elektriko geratzen dira berrerabili gabe urtero, eta kopurua gorantz doa urtez urte. ■



Garunean interkonexio gehiegi dute autistek



NEW YORKEKO Institutu Psikiatrikoko Jeffrey Liebermanek egin berri duen aurkikuntzak itxaropena sortu die autismoaren aurkako borrokan dabilzanek.

Liebermanek dioenez, garunean nerbioen arteko konexio gehiegi badago autismoa sortzen da. Jaiotzean, umeei mota horretako interkonexio asko izaten dituzte, baina normalean, hazi ahala gutxitu egiten dira. Ez da horrela gertatzen autisten kasuan: haien interkonexioak

mantendu egiten dira, eta horrek informazio gainkarga sortzen die garunean. Hala, informazioak ezin du era egokian zirkulatu.

Liebermanen lantaldeak adierazitakoaren arabera, interkonexio horiek gutxituz hobekuntza nabariak lortu beharko lirake autisten egoeran. ■



Erle eta sugeen pozoia minbiziaren aurka

Illinoiseko (AEB) Unibertsitateko ikerlari talde baten arabera erleen, sugeen eta eskorpioen pozoietan oinarritu litezke minbiziaren aurka garatu nahi diren farmako berriak. Ikerlariok modu bat asmatu dute pozoia horietako proteinak zelula gaitxetara bideratzeko, osasuntsuak ukitu gabe.

ttiki.com/78070
(Gaztelaniaz)

Berokuntza globalaren "desazelerazioa"

Munduko berokuntza prozesuari egozten zaio azken urteotako hainbat gertaera meteorologiko bortitz. Baina azken hamabost urteotan Lurraren beroketa moteldu egin da. Berokuntzarena gezurra ote den, harekin batera hozte prozesua ere gertatzen ari ote den... Eztabaida bizia dago ikerlarien artean.

ttiki.com/78071
(Gaztelaniaz)

Bizi itxaropena gero eta handiagoa, baina noiz arte?

Abuztuan entzun eta irakurri genuen Europako biztanleen bizi itxaropena hazi egin dela azken hamarkadan. Euskal Herrian, hain zuzen, Europako handienetakoa dugu. Ikerlari batzuen arabera, ordea, ingurumenaren degradazioarekin batera bizi itxaropenak beherantz egingo du.

ttiki.com/78072
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Biolina jotzen

BIOLINA JOTZEN DET. Biolin-jotzaile baino harpa-jotzaile hobeena naiz, baina biolina dut bizibide. Uda beroa; beroak luze jotzen du. Guk jo eta berak jo. Uda partean dut nik pagotxa, kontzertu korda. Alferra, udan, lehenaz gain, harrotu egiten da, eta batzuek kontzertu batean edo bestean izana dela azaldu beharra daukate, ur gaineko bitsaren adierazle. Nire biolina entzutera inguratzen den askorentzat, bere doinua zuldar baten tankerakoa da. Sasoikoa, pasako da, eta kito. Bizibide ederra dena bizimodu petral bihurtzen dit, zenbaitek. Entzule lorontziez ahaztu beharra daukat, baldin eta goren jo nahi badut. Lorontziak balira datoz eta: “Parfum terralez” inguratuta, bitxien tintin eta dilyn jariotan eta, egin ahalagatik, gilborra ezkutatu ezin dien soineko eta frak eta fraketan enbutituta.

Gaur Camille izango dut konpañero. Camille Saint-Saëns, bekatu eta jolas lagun. Nire ohai-de piano-jotzaileak, haren *Anima-lieu inauteria* jo nahiago luke, baina niretzat, nire biolinarentzat eta biolinaren niretzat, gaurko egitarauaren gailurra izango den *Hil Dantza* bezalako gutxi dago. Ehun eta berrogei urte dituen doinua... Klasikoetan klasikoena



BRUNOTHG-CC BY SA

izan nahi zuena. Jotzen dudanero hildakoa jaiotzen dela irudikatzen duena.

Eta klasikorako klasikoa, biolina. Kutzaren gaina izeizkoa (*Picea* sp.) eta aldeak eta azpia astigarra (*Acer* sp.). Astigar berezko eskutokiaren gaineko diapasona ebanozkoa (*Diospyros* sp.). Hariei eusten dien zubitxoak ere astigarra. Hariak, jakina, ardi hestez eginak, doinu meheen kantinoa izan ezik, hori urrezkoa. Horiei eusten dien zubipekoa palisandrozkoa (*Dalbergia* sp.). Zur berekoa da

hariaren gainean dantzatuko dudana uzaia. Horren heldulekua ebanozkoa eta haria Mongoliako zaldien isatseko 187 zurda zuriz txirikordatua.

Eta frakaren ezker aldeko barruko patrikatxoan dudana kolofonioaren aldera karga sentitu gabe ezin go nintzateke orkestrara lotu. Hariak hariari heltzeko kolofonioa. Hestezko harientzat aproposena, bike gorritzkoa, itsas pinuaren (*Pinus pinaster*) negar zihotua. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Belardian menta belar asko daukagu eta hori nola galdu ote dezakedan da nire galdera. Eskertuko nizuke nire zalantza argitzea. Aldez aurretik mila esker.

Aitziber Urdangarin (Ataun)

Kaixo Aitziber. Menta nitrogeno asko dagoen tokietan ugaritzen da. Ganadua ibiltzen delako edo simaur asko botatzen delako, edo... Galtzeko era onena maiz moztea da. Motosegarekin ongi, moztu eta berritu ordurako berriaz moztu. Mentak lur azalean dituen sus-



FOREST & KIM STARR-CC BY

trai lodikoteak energiaz hustea da helburua. Lan hori ilgoran eginez gero, hobeto. ■

300 espartarretako bat izateko baldintzak

LEGENDARY PICTURES



300 espartarren heriotza Termopiletako guduan, *300* (2007) filmaren arabera. Berez, 298 hil ziren guduan, baina beste biek ere ez zuten luzaroan iraun. Espartar erregearen guardiek 29 urte izan zitzaizketen gehienez, eta baldintza hura betetzea erraza zen. 30 urte bizirik betetzea askoz zailagoa zen haientzat.

GREZIA, K.a. 480ko IRAILA. Leonidas erregea buru zuten 300 espartarrek Xerxes I.aren pertsiar armada geldiarazi zuten, ahaleginean guztiak hil bazituzten ere. Mitoak 300 gudarien ausardia goreski arren, espartarrak ez zeuden bakarrik. Herodotoren arabera, Greziako beste hainbat hiri-estatutako soldaduak ere borrokatu ziren espartarrekin batera: 2.120 arkadiar, 1.000 tegiar eta mantinear, 700 tespiar, 400 korintiar, beste 400 tebar eta 200 beoziar. Dena den, espartarren sakrifizioa ez zen hutsala izan eta, azkenean, Plateako guduan (K.a. 479) greziarrek pertsiarrak menpean hartu zituzten, askoz gutxiago izan arren.

300 espartarrek Espartako erregeen guardia pertsonala osatzen zuten. *Hippei* (zaldun) esaten zitzairen eta borrokan falangearen erdialdean kokatzen ziren, erregearen aldamenean. Eliteko taldean sartzeko, hautagaiak baldintza zehatzak bete behar zituzten.

20 eta 29 urte bitartean izan behar zituzten. Eta proba gogorrak gainditu behar zituzten erregearen guardiako kide izateko. Proba horietan, batetik, armekin zuten abilezia erakusten zuten. Hautagaien erresis-

tentzia eta indar fisikoa ere egiaztatzen zuten. Baina ziurrenik ezaugarri garrantzitsuenak ausardia zen.

Agoge izeneko espartar hezkuntza sisteman ederki irakatsi zieten, espartar gudarientzat koldarkeria baino irain lotsagarriagorik ez zen. Eta galdutako guduetatik bizirik itzultzea koldarra izatea zen haientzat. Itzultzen zirenei koloretako adabakiak josten zizkioten kapan, *sysitia* izeneko jantoki publikoetara sartzeari galarazten zieten, eta maila bereko hiritarren alabekin ezkontzeko aukera galtzen zuten. Finean, herritar eskubide guztiak kentzen zizkieten.

Termopiletako gudutik Leonidasen guardiako bi *hippei* itzuli ziren Espartara: Pantites eta Aristodemok. Ez bata ez besteak ez zuten lortu umiliazioari aurre egitea. Pantitesek bere burua urkatu zuen etxera itzuli eta berehala. Aristodemok, hurrengo urtean, galdutako ohorea berreskuratzeko ahalegina egin zuen; Plateako guduan bere burua falangetik bakartu zuen eta pertsiar ostenen kontra bakarrik joan zen, heriotza ziurra-
ren bila. ■



Arrastoak

Neanderthalak bizikide izan genituen 5.000 urtez



OXFORDEKO UNIBERTSITATEKO ikerlariak buru dituen nazioarteko talde batek argitaratu berri duenez, Europan Neanderthalak eta *Homo Sapiens Sapiens*-ak batera bizi izan ziren luzaroan, 2.600dik 5.400 urtera bitarteko tartean. Besteak beste, EHUKo Maria Jose Iriartek eta Alvaro Arrizabalagak osatutako lantaldeak erradiokarbono

bidezko datazio sistema hobetua erabili du ondorio horretara iristeko, eta datu berria hominido espeziearen desagertzea argitzeko lagungarria izango delakoan daude. Oraingoz, ondorioztatu dute Neanderthalak ez zirela bat-batean desagertu; kronologia berriak espeziaren galbidearen patroia zehazten lagunduko du. ■

euskal
herriko
lehenengo

ELEKTROTXARANGA TOPAKETA!

TTEK!
elektrotxaranga
Gasteiz • 95,1km

SKANDALUE
elektrotxaranga
Azpeiti • 92,1km

MOTXAILA BANDA
elektrotxaranga
Mendaro • 80,9km

TXARANGAZO
elektrotxaranga
Portugalete • 43,8km

ORKRESTA
elektrotxaranga
Bilbo • 34,1km



Irailak 6 **Bermeo**

EGUNERO EGITARAU

**Poteoa • Herri bazkaria • Txaranga kirolak!
Herritik kalejira • Kontzertuak**

f t #ElektroTopaketa

www.elektrotxarangaatopaketa.com

BUENAVENTURA DURRUTI

Leonera emigratu zuen Laurent Durrutiren leinua kausitu dugu Aiherran

Buenaventura Durrutiren peskizan aritu gara. Bi lagunek argitu digute haren jatorriaren nondik norakoa. Xabier Martin da lehena, Durrutiren leinukoa. Xabier Elozegi bigarrena, ikerlaria. Lehenak berebiziko interesa ukan du haren arbasoen jatorria ezagutzeko, bigarrenak berriz, ikerketetan aritua izaki, ederto lagundu dio.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



Buenaventura Durruti anarkistak Aiherran du jatorria. Ixuribeherea etxaldea erdikoa da, Etcheberry familiarena gaur egun.

XABIER MARTIN (Deustu, 1984) Buenaventura Durrutiren leinukoa da. Grinaz bizi du euskaltasuna: www.iparra.eus-en egilea da. Bere arbasoen jatorria ezagutzeko nahia ere azaldu digu. Durrutitarren zuhaitz genealogikoaren bila emandako urratsak ez zaizkio alferrikoak izan. Zoriak Xabier Elozegi ikerlariarengana (1937, Tolosa) bideratu du: “Nire amamak Durruty eta Etchegaray familiak haserretu zirela kontatu zidan behin”, diosku Xabi Martinek. Durrutitarren sortetxeak Aiherran zeudela bazekien Xabik, baina besterik ez. Iaz Aiherrara hurbildu zen

neskalagunarekin: “Arbasoen etxerik topatu ez, eta kanposantura joan ginen. Durruty izen pila ikusi genituen bertan”.

Hilerrian, bilatzen ari zirena azaldu zioten herritar bati. Aiherakoa den Eñaut Elosegirengana bideratu zituen. Honek berriz, aitarengana, Xabierrengana: “Izparterreko mutiko batekin topo egin dut. Durrutiren ahaide dela esan dit”. Elozegi aitak Durruti anarkista ezagutzen zuen, gaztetan irakurria. Haren pasadizo gogorrak ditu gogoan: “16 urteko mutiko bat erori omen zen anarkisten eskuetan eta Durrutik esan zion ‘edo

gerlara zatoz gurekin edo hilko zaitugu’. Eta garbitu omen zuten”. Omen. Gizon gogorra zela zioten: “Gerratean Teruelgo Caspe herria hartu zuen, baita ia Zaragoza ere. Sekulako kontzientzia zeukan, bere ejertzitoan ez zegoen hierarkiarik. Apaiza anarkista bat ere berarekin ibili zen, anarkista baino gehiago durrutista...”.

Durrutiren borroka “buruz burukoa izan zen, klase borroka” izan zela dio Elosegik. Durruti sindikalismoan hasi zen, sozialismoan, baina biguna zelako anarkismoa bide egin zuen. Hierarkiak zirela-eta gorabeherak zeuden



Espainiar iraultzaile ospetsua

BUENAVENTURA DURRUTI Leonen sortu zen 1896ko uztailaren 14an. XX. mende hastapeneko langile-borroketan aritu zen eta parte-hartze handia izan zuen 1936ko Gerran. Lehenik sozialista izan zen, baina gertatzen sozialistak utzi eta mugimendu anarkistaren ikurra bilakatu zen. Gerra hasi aitzinetik aitzindaria zen, eta are aitzindariagoa bilakatu zen 1936ko Gerran. Aragoi eskualdean hainbat gudutan garaile jalgi zen, eta iraultza anarkista antolatu zuen bereganatu zituen eremuetan: aberatsen lurak laborariei emanez, dirua deuseztatuz, eta abar... Francoren aldekoak Madril erasotzekotan zirelarik hara joan zen zenbait mila soldadurekin. Madril hil zuten 1936ko azaroaren 20an.

Xabier Elozegi ikerlariak erran digunez, data harrigarria da azaroaren 20koa. Egun berean hil ziren, besteak beste, Jose Antonio Primo de Rivera, Buenaventura Durruti, Francisco Franco, Santi Brouard eta Josu Muguruza. Guztiak erailak, Franco salbu.

orduan, baina, batez ere, orduko jendeak gogorak ziren. Elozegik azpimarratzen duenez, “garai hartako sozialistak oso gogorak ziren, pentsa”.

Xabi ezagutu ondoren, Buenaventura Durrutiren zuhaitz genealogikoa areago inarrosi du Elozegik: “Laurent Durrutyren ezkontzaren agiria aurkitu nuen. Xabiren hirugarren aitatxi da. Laurent [Espainiako] Leonera joan zen durrutitarren azken gizaldikoa da. Aiherran sortu zen 1842an. Leonen ezkondu zen 1865ean, Josefina Malgorrekin, euskaldun jatorrikoa hau ere. Ahetzen izen bereko leinua badago...”.

Aiherratik Leonera

Laurent Durruty gaztea, 26 urte zituen, Leonen Lorenzo bihurtzen

da eta zenbait urteren ondoren Aiherrara itzuli zen. Hiru urte lehenago ezkondu zen Leongo Udaletxean. Aiherrako Herriko Etxean egon zen. Ezkontza agiriaren transkripzioa egitea eskatu bide zuen.

“Laurent Durrutiren ezkontzaren agiria aurkitu nuen. Xabiren hirugarren aitatxi da”

Xabier Elozegi

Elozegik aurkitu du agiria, frantsez, espainierara ere itzulia: “Bitxia da. Transkripzioa nahi zuen. Zergatik?”. Hipotesi bat bota du ikerlariak: “Etxea premuari ematen diote. Alabaina, dotea beste seme-alabari

eman ohi diote hau ezkontzen denean...”. Laurent Durruti Buenaventura Durrutiren aitona zen. Zortzi haurrideen artean –guztiak Sarri-gaínean sortuak– zazpigarrena zen. Zergatik joan zen Leonera?: “Goseak edo ezin egonak bultzaturik. Misterioa”. Euskaldunak Ameriketara emigratu ohi ziren garai hartan.

Durruti abizena ezaguna da Leonen. Durruti enpresa elektriko bat dago han. Haren ondorengoarenak, naski; aurri-zorian dago orain. Leon hiriburua txikia zen orduan, 20.000 biztanlekoa. Klase eta langile borroka handia zegoen: “Laurent joan zenean larru-ontzailea zen. Josefina

Xabier Elozegi ikerlariaren laguntzaz

XABIER ELOSEGI TOLOSARRA anarkista iraultzailearen jatorriaren arrastoan murgildu zen buru-belarri, Xabi Martin gaztea Buenaventura Durruti bere arbasoaren jatorria bilatzen ari zela jakin zuenean. Xabi Izparterren bizi da eta Xabier Baionan. Elozegi ikerlariak Aiherrako Sarrigaínea, Ixuribeherea, Espertategia eta Lekorneko Soroeta etxaldeko bizilagunen zuhaitz genealogikoa sakon aztertu eta bederatzi belaunaldiaren kronika osatu du: senideen eta etxaldearen izenak, jaiotzak eta heriotzak, ezkontzak...

“Durruti eta Malgor Iparraldeko deiturak dira. Horra non atzeman dudan Aiherrako ezkontzetan 1869-11-13ko agiri bat. Bertan erraten denez, larrugile eta aihertarra den 26 urteko Laurent Durruty (azken urtetan Leonen bizi dena), bere jaiotxera etorririk, haren ezkontzaren transkripzioa egina izan dadin galdegiten du...”, idatzi zigun e-postaz Xabier Elozegik orain hilabete batzuk.



Elozegi ikerlari aparta, eskuinean; Ixuribehereko Jean-Pierre Etcheberry nagusiarekin eleketan.



Durrutiren ondorengoak. Goitik behera: Xabi Martin Hervé Parachouekin, Sarrigainearen aitzinean. Ixuribehereko ezkaratzean Mizel Etcheberryekin. Espertategiaren sarreran Ttomas Darraidouekin.

Malgor neska horren aitona ere hemendik nonbaitetik joana zen lanera Asturias aldera. Neska horren aita Navian (Asturias) ezkondu zen. Genealogia hori

nobela bat idazteko modukoa da". Durruti eta Malkorren ezkontzako lekukoa Jacques Eguiagaray da. Buenaventuraren birramona Eguiagaray zen.

Ignacio, Santiago, Mariano...

Laurentek lau seme izan zituen, gutxienez. Gehiago ere izan daitezke. Santiago Anastasia Dumontekin ezkondu zen (Dominguez izena ipini zioten gero). Santiago pobrea zen, garaiko langileak bezala, borrokalaria, sozialista. Leonen sortua, bertan zendu zen 1931n.

Lorenzo Durruti Rabadan, Xabi Martinen birraitonaren anaia Cecilio Durruti Rabadan izan zen. Cecilio, 1912an sortua, Antolina Prieto Gutierrezkin ezkondu zen. Bien semea industrialaria izan zen: Ignacio Durruti Prieto. "Zure amonaren lehengusu hori 2011n zendu zen -Xabierrek diotso Xabiri-. Bada ere Maria Pilar Durruti Prieto ize-neko andere bat, Getxon bizi dena (Areetan). Ignacio Durrutiren berri zehatzik ez dut aurkitu. Ez dakit ere Maria Pilar horrek -familiakoa baldin bada- ondorengorik baduenetz". Xabierren bilatze lana gaitza izan da. Xabik esker oneko berbak besterik ez ditu berarentzat.

"Laurenten semea, Ignacio, zaharrena, Buenaventuraren osaba, Facunda Rabanarekin ezkondu zen. Hainbat seme-alaba izan zituzten. Bonifacio horietako bat. Maisua, falangistek hila. Nik Lorenzo eta Cecilio izenak aurkitu nituen, baita Raquel ere. Raquel Durruty Bertolekin ezkondu zen. Raquel Durruti nire amona zen. Nire aita berriz, Javier Martin Durruti" dio Xabik.

Bertol futbol jokalaria izan zen. Zarrarekin jokatu zuen Athleticen. Xabiren amama horren aitona ezkondu zen. Martin abizena zuen: Juan Martin. Xabiren aita Javier Martin da: "Ni neu Martin Martin naiz. Nire ama ere Martin baita. Aitari esan nion erregistrora joateko eta amamaren lehenengo abizena lehena jartzeko: Durruti. Durruti nire hirugarren abizena da".

Xabi Martinek Durruti izena berreskuratu nahi du. Madrileran joan beharko du izapideak bidartzeko. Alabaina, bere arrebak ere prozesu bera bete behar du, bestela ezinezkoa izango zaio izena aldatzea: "Kontua da nire aita Javier ere badela. Aitak abizena aldatu du jadanik. Javier Durruti Martin bihurtu da eta ni ere hala izango naiz".

Sarrigainea, Ixuribeherea eta Espertategia

Durrutiren bizitza nobela baterako baino, nobela da. Frantzia, Kuban eta Hego Amerikan ibili zen Espainiako gerra zibila hasi aurretik. Haren arbasoen etxaldeetara hurbildu gara Xabi eta Xabierrekin. Aiherako Sarrigainea, Ixuribeherea eta Espertategia egon gara. Elosegik haien arbaso Buena Ventura nor izan zen azaldu die kartsuki: “Anarkista eta aszeta izan zen, baita liburuen artean bizi ere. Anarkistak jende ikasia zen. Parisko emakume batekin ezkondu zen. Collette alaba ukan zuten. Bizitza ikaragarria izan zen euren. 1936an hil zuten. Bartzelonan ehortzia izan zen, hiria kolapsatu zuten...”, kontatu die Hervé Parachou, Mizel Etcheberry eta Ttomas Darraidouren gurasoei: Aiherrako Sarrigainea, Ixuribeherea eta Espertategia etxalde nagusiak hurrenez hurren. Hauek harriduraz entzun diote Elosegiri.

Laurent Durruti Leonera joan zenean, Aiherran elebakarrak izango ote ziren aipatu dugu: “Bai,

**“Aitari esan nion
amamaren lehenengo
abizena lehena jartzeko:
Durruti”**

Xabi Martin

noski. Frantses eskola Jules Ferryrekin uniformatu zen, 1870ean. Hezkuntza apaizen eskoletan zen ordura arte. Herritar xumeek sinadura egiten ez zekiten orduan”.

Guk, anartean, zoria dugu gurekin, Hervé Parachou (Sarrigainea), Mizel Etcheberry (Ixuribeherea) eta Ttomas Darraidou (Espertategia) gazteak euskaldunak baitira. Jean-Pierre eta Graciene Hervéren aita-ama dira. Hervéren aitona Graciene zen, birraitona Jean-Baptiste Durruti. Etxe horretara ezkondu zen. Ez zen Sarrigainea etxaldekoa, beraz. Ixuribeherekoa zen. Ixuribeherekoa Mizel Etcheberry gaztea da, hautetsi abertzalea Aiherran.

“Durrutietako bat, hemen sortua, Sarrigaineko alaba batekin

ezkondu eta hango nagusia bilakatu zen. Bi belaunaldi bizi izan ziren Sarrigainean”, azaldu die Elosegik Mizelen aita-amari. “Haren seme Laurent Espainiara joan zen berantago eta han ezkondu. Buena Ventura Durruti famatua haren semea izan zen. Iraultzailea. Honen (Xabi) amaxiren aitaxi Durruti famatuaren aitaren anaia zen...”. Etcheberrytarrek ahobete hortz behatzen diete Xabiri eta Xabierri.

Ixuribeheretik Espertategira joan gara. Bi etxaldeak elkarren ondoan daude. Abertzaleak dira hauek ere. Elosegik eta Martinek Durruti familiarren ibilbidea azaldu die Ttomasi, honen guraso eta osabari: “Durrutitarrak Sarrigainera heldu ziren Ixuribeheretik, baina, Durruti hura, gaur egun Espertategia izena duen etxalde honetara Lekorneko Soroeta etxaldetik heldu zen. Marie Londaitz (1745eko maiatzaren 15ean sortua) eta Dominique Durruti (1741eko uztailaren 3an sortua) ezkondu ziren etxe honetara. ■



Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako masterra 2014/15



Ikerketa masterra doktoretzarako aukerarekin, 3 ikerlerro hautatuz 5etik:

- Hizkuntzalaritza aplikatua
- Euskal literatura
- Euskal gramatika
- Euskararen (aurre)historia
- Euskalkiak

Eskolak urritik abendura arte eta otsailetik martxora arte; 60 kredituak urte betean edo bitan egin daitezke; urte betean eginez, goiz eta arratsalde (10:30-13:30 eta 15:00-18:00); bi urtean eginez, goizetan ala arratsaldeetan baizik ez.

Argibide akademikoak: Xabier Artiagotia (945 013 150) xabier.artiagotia@ehu.es

Argibide administratiboak: Guille Ibeas (945 013 410) guillermo.ibeas@ehu.es

Aurrematrikulazioa oraindik ere zabalik



Egingo ote du jauzi Masek?

2013ko abenduaren 12an CiU, ERC, ICV eta CUPek 2014ko azaroaren 9an kontsulta ez loteslea egitea erabaki zuten, herritarrei bi galdera luzatuz: “Nahi al duzu Katalunia estatua izatea? Eta estatu hau independentea izatea?” Bada, heldu da zezenari adarretatik heltzeko unea, legezko bidearen azken urratsak atondu eta piszinara jauzi egiteko tenorea.

| XABIER LETONA |

ESPAINIAKO GOBERNUAK argi adierazi izan du azaroaren 9ko kontsulta legeaz kanpoko delat eta ez duela baimenduko. Kataluniako soberanismoak apustuari tinko eutsi dio gaur arte eta orain heldu da heltzea sutan jartzeko ordua. Galdera ikur bat da nagusi: eutsiko al dio CDCK kontsulta gauzatzearen erronkari, Espainiako aginteei berau debekatzeko dutenean?

Soberanismoaren ikuspegia argia da: azaroaren 9an kontsulta egiteko akordioa hitzartu zen eta hori da egin behar dena. Kito. Hemendik aurrerakoa dena da hipotesia, publikoki adierazi ez arren, denek dutelako B planaren hainbat aldaera. Kontsulta egingo ez balitz, mahai-gainera zer atera adostu beharko dute independentistek. Espainiako Gobernuak, kontrara, pentsatu beharko du erreferenduma eragozteko zer egin edo egin eta Bai-Bai ateraz gero nola erantzun. Tartean, legezko azken pasarteak josi behar zaizkio kontsultari.

Herri kontsulta ez lotesleen legea

Kataluniako Estatutuak ez du legezko eskumenik erreferendum lotesleak bideratzeko, baina bai kontsulta ez lotesleak; eta eskumen honetan oinarritu da Kataluniako Legebiltzarrak Herri kontsulta ez lotesleen legea prestatzeko. Estatutuaren Bermeen Kontseiluak bere baiezkotza eman zion legeari joan den astean,

hori bai ozta-ozta: bederatzi kideetatik bost boto alde eta lau aurka. PSC, ICV eta PPK izendatutako lau kidek eman zioten ezetza, eta ez guztiek arrazoi berberengatik. Kontseiluak ez du aztertu azaroaren 9ko kasua, baina argi utzi du egin daitezkeela kontsulta ez lotesleak.

Egutegiaren arabera, Bermeen Kontseilua gainditu ondoren, orain Kataluniako Legebiltzarrak Legea onartuko du seguruenik irailaren 19an, urteko eztabaida orokorraren amaieran. Ondorengo egunetan, Generalitateak azaroaren 9ko kontsulta deialdi ofiziala egingo du.

Eztabaida juridikoaren mamia

Helburu politikoak bide juridikorik ez badu, hau eraiki egin behar da eta hori da kontsultaren aldekoek egin dutena. Zer egin? Zer ez? Erreferentzia gisa, besteak beste, hori izan dute 2008an Auzitegi Konstituzio-

nalak Eusko Legebiltzarraren herri kontsulta bertan behera uzteko argitaratu zuen ebazpena.

Orduan, funtsean, zera argudiatu zuen Auzitegi Konstituzionalak, Ibarretxe lehendakariaren kontsulta saioa atzera botatzeko: bat, kontsulta ez loteslea izatea ez da garrantzitsuena, erreferendumak ere izan daitezke ez lotesleak, eta bere ezauzgarriengatik, hau erreferendum bat da (adibidez, EAEko hauteskunde errolda erabiltzeagatik); bi, Eusko Legebiltzarrak ez du erreferendumerako eskumenik, hori gobernu zentralaren eskumena da; hiru, ez dago erabaki eskubiderik duen Euskal Herririk kontsulta honen atzean, EAE baizik, eta honek bakarrik dei ditzake erreferendumak bere autonomia estatutua erreformatzeko eta, beti ere, aurretik Madrilgo Gobernuaren baimena izanda. Lau, kontsultak Konstituzioaren oinarriari eragiten dio, hau da, Espainiako Nazioaren batasunari eta, beraz, ez dago batasun horren hausturaz bere kabuz erabaki dezakeen euskal subjekturik.

Ez dirudi samurra, beraz, Kataluniako kontsultaren izaera ez lotesleak Auzitegi Konstituzionalaren iritzia gaintzea. Hala ere, oraingo legeak baditu zirrikitu batzuk kontsultak bere izaera ez loteslea indartzeko. Batetik, ez du erabiliko hauteskunde autonomikoetako erroldarik, 16 urtetik gorakoei boto eskubidea

“Hori litzateke, agian, CDCren planik gustukoena, kontsulta ez egitea eta Espainiak bere debekua luzatu ondoren, Legebiltzarra desegitea eta hauteskundeak aurreratzea”



Aurtengo Via Katalanak garaipenaren ikurra irudikatuko du Bartzelonan herritarrek osatutako senyera erraldoiarekin.

ematen die eta Katalunian denbora bat daramaten atzerritarrei eta atzerrian bizi diren katalanei kontsultarako boto eskubidea emango die. Ikusiko da nola aldatu den Espainia 2008tik hona, baina ez dirudi honek guztiak Auzitegi Konstituzionalaren iritziazen gainetik jauzi egiteko balioko duenik, haren argudioen oinarria, azken finean, juridikoa

baino politikoa delako eta Espainia-ko botere nagusienek argi utzi dutelako Kataluniak ezin dezakeela halako kontsultarik egin. PSC eta PPk Konstituzionalak Ibarretxeren kontsultan erabilitako argudio bertsuak erabiltzen dituzte eta hauen ordezkariak ere berdintsu egin dute Bermeen Kontseiluan. PSCren ordezkariak aipatu dute

galderaren funtsa independentzia dela, horrek Espainia osoari eragiten diola eta, beraz, Madrilgo Gobernuaren baimena ezinbestekoa dela. PPko ordezkaria sinpleago mintzatu zen: independentzia ezinezkoa bada, nola izango da legezkoa hari buruz galdetzea? Bi alderdientzat, kontsulta hau erreferendum kamuflatua da.

Diada 2014, garaipenaren unea

Bide Katalana 2014. ANC (Kataluniako Batzar Nazionala) eta Òmnium Culturalek antolatu dute *Orain da unea* lelopean. Irailaren 11n 17:14ean (Bartzelonako erorketaren data) herritarrek V erraldoi bat osatuko dute Bartzelonako Gran Via eta Diagonal kaleak —11 kilometro— herritarrez betez.

Miloi bat pertsonako Senyera. Miloi bat pertsonarekin senyera erraldoi bat osatuko da, peto hori eta gorritz jantzita. Abuztuaren azken egunetan 250.000 bat pertsonak parte hartzeko izena emana zuten.

V, garaipena. Esanahi asko ditu V letrak munduan zehar, baina zabalduena garaipenarena da. Azaroaren 9ko kontsultari Bai-Bai aukeraren garaipena erakutsi nahi zaio munduari.

Miloi erdi pertsona Bai-Baira erakarri. Irailaren 11tik eta azaroaren 9ra arte falta diren bi hilabete eskasetan, antolatzaileek 100.000 herritar mobilizatuko dituzte oraindik zalantzan diren 500.000 herritar Bai-Baira erakarri eta kontsulta irabazteko.

Blue State Digital. AEBetako komunikazio enpresa hau ari da bideratzen *Orain da unea* komunikazio kanpaina sarean. Sarean komunikazio politikoa egitea da bere bereizitasuna eta, esaterako, Barack Obama AEBetako lehendakartzara eramanez kanpainaren alor digitalaz arduratu zen. Berak darma, halaber, Eskoziako erreferendumaren ezezkoaren kanpaina.

ANC



Diadaren antolatzaile ANC eta Òmnium Cultural Orain da unea kanpainaren aurkezpenean: milioi erdi Bai-Bai berri eskuratu gura dituzte kontsultan.

B plana

Orain ez da hortaz hitz egin nahi, baina kontsulta debekatzen bada mugimendu soberanistak erabaki beharko du zer egin. ERCk eta CUPEk argi dute, debekuaren gainetik kontsulta egin egin behar da. Prozesu Konstituziogilearen inguruko indarrek ere berdintsu uste dute eta Ada Colauk gidatzen duen Bartzelona Irabaz Dezagun mugimendu berriak ere bai. ICV oso zatikatua dago gai honetan, baina gaurko kontsulta egin behar dela dio, argitu gabe debekuaren aurrean zer egingo lukeen.

Eta galdera ikur nagusia CDC da, ERCk Europako hauteskundeetan gainditu ondoren estu eta Jordi Pujol aferak zurrumbilo latzenean murgildu duena. Bi zatitan banatua dago –debekuaren gainetik jauzi egitearen ustekoak eta legalitatea errespetzearen aldekoak– eta zantza handiak dira azkenean hartuko

den jarreraz. Madrilgo hedabideek saldu dutenez, Artur Mas lehendakariak jadanik adierazia du ez duela legez kanpoko kontsultarik egingo.

Hauteskunde aurreratuek

“Bozkatu, bozkatuko da” diote Masen alderdikoek, kontsultan ez bada hauteskunde autonomiko aurreratuetan. Hori litzateke, agian, CDCren platerik gustukoena, kontsulta ez egitea eta Espainiak bere debekua luzatu ondoren, Legebiltzarra desagitea eta hauteskundeak aurreratzea, horietara ERCrekin zerrenda bateratua aurkeztuz. Baina gaitza dirudi Esquerrak halakorik onartzea oso baldintza argiak izan gabe eta horietako garrantzitsuena zera litzateke, hauteskunde programak argi adieraztea emaitzek hala ahalbidetuz gero Kataluniako Legebiltzarrak independentzia aldarrikatzea. Ausartuko litzateke CDC halakorik onartzen? Gaitza, baina

posible; baina aurrerantzean dena izango da gaitza independentistentzat. CDCren arrisku larriena egun zera da, independentziaren alde irmo egin ezean, gizarte soberanistak bere gainetik jauzi egitea eta botere guneetatik guztiz kanpo geratzea.

A-9an ezer ez gertatzea

Hipotesi gehiago ere badira, gogoragoak eta bigunagoak, baina ANCko lehendakari Carme Forcadellek gogorarazi berri duen moduan, lehenago edo geroago “Espainiako legalitatea apurtu beharko da, Espainiak ez duelako independentzia baimenduko”. Bi helburu nagusi ditu orain mugimendu soberanistak: bata batasunari eustea; bestea, nazioartera begira bere urrats guztiak erabat demokratikoak eta gizartean nagusi direla erakustea. Giltzarri da argi agertzea Espainia dela Kataluniako herriaren borondatea era ez demokratikoan urratzen ari dena.

Arriskuak ugariak dira eta ez da txikiena ERCko lehendakari ohi Josep-Lluís Carod-Rovirak uztailaren amaieran Nació Digital agerkariko iritzi artikuluan batean azpimarratzen zuena: “Gerta dakigukeen txarrena zera da, azaroaren 9an ezer ez gertatzea, horrek etsipen eta nahasmen handia ekarriko lukeelako eta, berez, galtzen hasteko modu bat litzatekeelako. Arazoaren 9an bozkatu eta irabazi nahi dugu. Bozkatuko eta irabaziko dugu. Gurea bi eratara bakarrik buka daiteke: edo oso ondo, edo oso txarto. Denon artean oso ondo amaitzea lortu behar dugu”. ■



Liburu azoka

Donostian, irailaren 5etik 21era Gipuzkoa plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Euskal prentsa aldarrikatzeko talaia 80ko hamarkadan

Bi hamarkadako etenaldiaren ondoren aurten berriz ospatuko da Argia Eguna, Usurbilen irailaren 27an. 1982an egin zen lehen aldiz, astekaria herritarrengana hurbiltzeko eta euskal prentsaren beharra aldarrikatzeko.

| URKO APAOLAZA AVILA |

IRAILAREN 27AN zita garrantzitsua duzu argiazale, Usurbilen: Argia Eguna ospatuko dugu eduki bete ekitaldiz eta festa giroan. Oso bestelako garaian eta asmoz berrituta helduko diogu erronkari, baina 80ko hamarkadako Argia Egunen xede berarekin: gure proiektu komunikatiboa herritarrekin konpartitzea.

Argia Eguna egiteko ideia ez da herenegungoa. Donostian argitaratzen zen *Argian* –ez nahastu astekari honen arbaso den Iruñeko kaputxinoen Zeruko Argiarekin– irakurle batek aldizkari hori sortu zen egunari “Argia Eguna” deitzea proposatu zuen 1932an: “Azken urte abetan, jai beri asko sortu dira. Zuaitz eguna, auzerki eguna, idazti eguna, aberi eguna... Ondo ez derizkiozu?”.

Mende erdi eta diktadura bat geroago, 1982an, halako egun bat antolatzeko beharra ikusi zen. Agian 1981ean Donostiako Balda pilotalekuan egindako 1.000 lagunentzako bazkariaren arrakastak hauspotuta, baina batez ere euskal prentsaren egoera prekariora bultzatuta, ekin zitzaion Argia Egunari.

Frankismo ostean, ia erabat gaztelaraz aritzen ziren aldizkari eta egunkari abertzaleen sorrerak euskarazko aldizkariak kolpatu zituen. *Anaitasuna* 1982an itxi behar izan zuten arazo ekonomikoek bultzatuta, eta zerutiar izateari utzi zion ARGIA berriak ere neguko lorea zirudien. Baina hainbaten esfortzuari eta askoren laguntzari esker iraun zuen.



1989ko kartela, euskarazko egunkaria sortzear zela.

Urte hartako azaroaren 28an mahaiak jarri zituzten hainbat auzo eta herritan aleak saldu eta harpidetzak egiteko. Hurrengo urteetan Argia Egunak gero eta indar handiagoa hartu zuen. 1984an Astigarragan bazkaria eta arratsalde-pasa antolatu zuten bertsolari eta gaiteroekin. Bertso paper sariketa ere egiten hasi ziren. 1986an 180 mahai zenbatu zituzten Euskal Herri osoan, 1987an jadanik 300 baino gehiago ziren, herrietako euskaltzaleen laguntzaz jarriak. Astekariak gain, Euskal Kul-

turaren Urtekaria, Txisteka-Misteka kasetea, egutegia eta beste hainbat produktu izaten ziren salgai.

80ko hamarkadan euskal prentsa bi aldagairen inguruan zentratu zen. Batetik, Eusko Jaurlaritzari diru-laguntzak igotzeko eskatu zitzaion behin eta berriz, “komunikabide diglosikoen porrota” argudiatuta. Bestetik, euskarazko egunkaria sortzeko abagunea gero eta erreala goa zen –ARGIAK hamarkada osoan metatutako esperientzia eta baliabideak *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko erabili ziren—. 1989an Argia Egunak *Euskal prentsaren eguna* leloa zeraman. Urte horretan banatu ziren lehen aldiz Argia Sariak eta pixkanaka astekariaren urteroko zita nagusi bilakatu ziren.

Azkeneko Argia Eguna 1992an egin zen. Bi astez luzatu zen, Donibane Lohizunen aste-bete geroago egin baitzen. Euskal Kulturaren Urtekariaren 5.000 ale saldu ziren eta egutegia agortu egin zen. Goizuetan Amaia Zubiria, Txomin Artola eta Ortzi taldeak 500 lagun bildu zituzten, Gasteizen bertso saio bikaina egin zen, Oiartzunen haurrentzako egun-pasa...

22 urteren ondoren, ARGIAK euskal jendarteko sarea aktibatu nahi du berriz ere, ospatzeko eta laguntza jasotzeko premia bera baita atzokoa eta gaurkoa. ■



Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari Jokin Azkuek erantzun egin dio Zigor Etxeburua Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendariari, ARGIA abuztuaren 3ko 2426. zenbakian (<http://www.argia.com/argia-astekaria/2426/zigor-etxeburua>) egindako elkarriketan esandakoen harira.

Utzi euskara politikakerietatik salbu!

EUSKARAK behar duela tinko sines- ten dugulako, lankidetzaz praktika- tzen dugu Eusko Jaurlaritzan hiz- kuntza politikaren ardura dugunok, bai herri erakundeen alorrean, baita gizarte eragileekiko harreman- etan ere. Eta lankidetzak, jakina, elkarrenganako errespetua, leialta- suna eta erantzukizun partekatua eskatzen ditu. Bestelakoa da, ordea, Gipuzkoako Foru Aldundian (GFA) euskararen ardura dutenen- gan gero eta nabarmenago antze- maten dugun jarrera. Izan ere, azken hilabeteotan nabarmen ari dira Gipuzkoa plazako jauregitik aireratzen deskalifikazioa, hizkun- tza politikaren aitzakian, Eusko Jaurlaritzaren jardueraren aurka.

Isilik jarraitu dugu lanean, eta elkarlanean, ez dugulako euskara bihurtzerik nahi “burruka toki ekaitzez bete”, Letek, Nafarroa gogoan, idatzita utzi zigunez. Ego- narriak, ordea, badu mugarik, eta muga hori gainditu du Zigor Etxe- buruak ARGIAren abuztuaren 3ko zenbakiko elkarriketan. Kritika erabat zilegitik harago –eta senti- tzen dut hau esan beharra–, tar- tean, guztiz zilegi diren desadosta- sunek batere zuritzen ez duten gezurra erabiltzen baitu.

Kontratazio administratiboan hizkuntza irizpideak erabiltzeko arauari dagokionez, hauxe dio: “Jaurlaritzak ere esan zuen araua 2006tik zegoela, bai baina ez du inoiz aplikatu”. Ez da egia: gera bedi garbi esanda. Horixe araua aplikatzen duena. Ziur aski, ez askok nahi genukeen hedaduraz eta irismenaz. Baina urrats sendoak eman ditu Jaurlaritzak alor horre- tan, ez herenegun edo gaur, duela zortzi urte hasita baizik. Bidea ireki zuen: esaterako, gaur GFAk balia- tzen dituen kontratazio administra-

tiborako hizkuntza irizpideak Jaur- laritzak 2006an onartu zituenen hitzez hitzeko kopia dira. Alabaina, GFAko Euskara zuzendariak berak aitortzen du 3 urteko jardunaren ondoren, GFAk ere ez duela admin- istrazio kontratuen %100ean hiz- kuntza irizpideak ezartzerik lortu. Zergatik darabil, hortaz, neurgailu diferentea bateko eta besteko lor- penez hitz egiterakoan?

Bestalde, GFAko Euskara zuzendariak, bere arau jardunari buruz ari denean, honela erantzut- en dio kazetariari: “Gainera, orain arte genituen tresnak hobetu ditu- gu Aldundian bertan .../... 2009ko araudia nabarmen hobetu dugu”. Hori ere ez da horrela. Izan ere, Markel Olano diputatu nagusi zela GFAk 2009an onartu zituen bi foru dekretuak berak dira (bi hiz- kuntza ofizialen erabilerari buruz- koa eta euskararen erabilera planari buruzkoa) gaur ere GFAn indar- rean direnak. Beraz, legealdia amaitzen ari da, eta EHBilduren foru gobernuak ez du aldatu GFARA sartu zenean indarrean zegoen euskarari buruzko foru araudi oinarritzakoa. Ez baita gauza bera *hizkuntza politika mende- ratzaile hau errotik aldatu behar dugu, hizkuntza politika berria eta beregaina!* aldarrikatzea, eta hainbestetan ira- garria baina oraindik ere ezezaguna izaten jarraitzen duen politika alter- natiboa garatzea diputazioaren neurriko erakunde batean.

GFAko zuzendariak zera dio baita ere: “Udal guztiek ez zituzten hizkuntza irizpideak ezarrita”. Hemen benetako nobedadea, ordea, Urquijo izan da, orain azal- du baita jada aspaldi samarretik toki askotan egiten zenaren kontra. Dagoeneko V. plangintzaldian gaude (administrazio publikoetan

euskararen erabilera normalizatzeko planei dagokienez) eta ia 20 urte daramatzate Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udal ugariak euskara planak onartzen eta gauzatzen, kolore guztietako agintariak buru direla. Horietako askotan, kontra- tazioarako hizkuntza irizpideak eza- rri dira, Jaurlaritzaren 1997ko (17 urte) Dekretu baten babesean, hain zuzen. Euskara biziberritzeko aha- legin instituzionala aspaldikoa baita, ez da hasi ezker abertzalea Gipuzkoa plazako jauregiko bule- goetara iritsi denean.

Ez da egia, ezta ere, GFAk eta Uemak eskatuta eskaintzen dienik Eusko Jaurlaritzak udalei aholkula- ritza juridikoa. Aspalditik eskain- tzen die Jaurlaritzak aholkularitza juridikoa, euskararen alorrean, beharra izan duten herri erakun- deei, eta oso bereziki udalei, Eude- lek eta Uemak ondo dakitenez. Eguneroko hitzezko aholkularitza gain, zenbat txosten ez ote ditu egin urteotan Jaurlaritzak udalen- tzako, ehunka! Jaurlaritzari kontu eske ibiltzea erraza da, baina hain zuzen ere kontratazioaren gai honetan, Gipuzkoan gertatu al da aholkularitza egokiaren adibidea? Zeren GFAk nolabaiteko aholkua eman die udalei, eta gero, Urquijo jauna bere errekurso festa zeharo onartezinarekin etorri denean, GFA bera joan zaie hainbat eta hainbat udali gomendioa egiten, lehen berak aholkatutakoari jarraiki egindako hartan atzera egiteko. Aurrena *Gipuzkoako udal guztietan hizkuntza irizpideak jartzeko prozesua martxan jarri eta zuzendu, bazeen ordua-eta!* bidetik jo eta gero, Urqui- jok ezpata atera duenean, Jaurlari- tzari kontu eske, eskumena Jaurla- ritzarena omen delako. Ez da erraza ulertzen. Esanak esan, Jaur-

laritzak lanean jarraitzen du udalentzako laguntza areagotzeko egin beharrekoak egiten. Kontratazioaren gaian eskumena duten sailen eta HPSren arteko lankidetzaz ari da Jaurilaritza prestatzen kontratazioan hizkuntza-irizpideak ezartzeari buruzko instrukzio administratibo bat, halaxe erabaki zuelako Legebiltzarrak (EAJk eta PSE-EEk proposatuta eta, paradoxikoki, PPren eta EHBilduren abstentzioarekin). Edukietan ez ezik prozeduretan ere segurtasun juridikoa bilatu eta eskainiko du Jaurilaritzak, bere eskumenak baliatuz, baina udalaren errespetatuz. Ahal den neurrian, segurtasuna zor zaie, bai euskarari, bai udalei ere. Zuzendari foralak ondo dakienez, instrukzio hori HAKOBARI (Jaurilaritza, hiru diputazioak, Eudel, Uema, hiriburuetako udalak) eta Euskararen Aholku Batzordeko Lege-garapeneko batzordeari aurkeztuko zaie lehenik, koordinazio eta lankidetzako praktikoaren lekuko.

Guztiarekin ere, GFAko Euskara zuzendaria are urrutiago doa aipatutako ARGIAko elkarriizketan: “Euskararen normalizazioak, administrazioan, ezin du joan borondatearen bidetik, horretan oso kritikoak gara Jaurilaritzarekin”. Jakin beharko luke Administrazioan ezartzen diren irizpideak arautuak direla, Eusko Legebiltzarrak edo Jaurilaritzak onartuak. Jakin beharko luke irizpide berdinak aplikatzen direla Administrazio guztietan, bakoitzaren egoera soziolinguistikorekin eta erabaki zilegiaren arabera egokituak.

Norberaren jarduna eta besteena baloratzeko kalibre desberdineko neurgailuz ari da GFAko Euskara zuzendaria bere kritikagintzan. Adibidez, honela hasten du bere erantzuna, kazetariak aipatzen dienean herriarrei GFArekin harremana euskaraz nahi duten galdetu zitzaizenean lortutako emaitza: “Legealdiko frustrazioak han-

diena izan da, teknikoki”. Norberarenak, antza, arazo teknikoak dira, edota zailtasunak. Besteena (bereziki beste hori Jaurilaritza baldin bada), euskararekiko axolagabekeria edo ardura eza. Arazo teknikotzat jo beharko genuke, beraz, GFaren aurrekontuan, euskara gizartearen sustatzeko deialdiek 2012tik 2014ra izan duten %4ko galera? Erantzukizun politikorik ez duen eta, are gehiago, azalpenik behar ez duen kontu teknikoaredo ote da? Erakunde guztien kasuan al da hori horrela, edo GFArenean bakarrik?

Ulertzekoa da, jakina, denbora bat eskatzen duela aldarrikapen eta errebindikazio hutsetik kudeaketa politikora pasatzeko. Ez dela egun batetik hurrengora ikasten den zerbait. Baina ardura publikoak zorrotasuna eta besteekiko zintzotasuna eskatzen ditu, baita desadostasunean eta lehia jatorrean ere, gutxienez lankide nahi omen dituzunekiko.

Euskara biziberritzeko ahalginak zerbait behar ez badu, hain zuzen ere, alderdikeria da. Behar du, hori bai, errespetua. Euskara gizartearen kohesiorako faktore garrantzitsua ere bada, eta euskal herritar guztion aldeotasuna eta atxikimendua behar ditu. Eta, hain zuzen ere, lankidetzak da horien baldintza eta emaitza. Batez ere, lankidetzak ezberdin pentsatzen dutenen arteko denean. Lankidetzak zintzo eta eraginkorrerako joko-arauetan kritikak eta desadostasunak badute, jakina, tokirik, baina gauzak benetan diren eta gertatu diren bezala aitortuta, manipulaziorik gabe. Egin dezagun politika euskararen alde, izan gaitezen horretan lankide, eta onar dezagun lehia politikoa ez duela justifikatzen euskara politikakerietarako erabiltzea. ■

Jokin Azkue

Eusko Jaurilaritzako
Euskara Sustatzeko zuzendaria

VITORIA
GASTEIZ
green capital



Euskara, zure frekuentzian

Zu euskalduna zara, inguruan, ordea, euskara ez dakien edo maila hobetu nahi duen norbait izango duzu. Lagundu iezaguzu ikasteko zenbat aukera duen zabalitzen eta animatu ikastera.

EUSKARA IKASTAROAK GIZARTE ETXEETAN

Matrikula: irailaren 2tik 14

Non: gizarte etxeetan

Info +: www.vitoria-gasteiz.org/euskara

• Gurasoentzako ikastaroak

Gizarte etxeetako gertutasuna aprobetxatuz eta umeen eskola ordutegi berberetan, badago euskara ikasteko aukera.

• Aitona-amonentzako ikastaroak

Aitona-amonentzat ilobez gozatzea baino gauza handiagorik ez dago. Gizarte etxean oinarritzko maila lortu eta familiarekin praktikatu!

• AISA ikastaroak

Gasteiz gero eta anitzagoa da; ziur asko ezagutuko duzu atzerriatik etorritako lagun bat, esaiozu ongi etorria eman nahi diogula eta euskaraz egin diezaiogun harrera!

• Merkataritza eta ostalaritzako langileentzako ikastaroak

Arlo horietan oso euskara gutxi edo ezer ez dakiten lagunak ezagun badituzu, eman ikastaro honen berri.

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

2014ko uztailetik 2015eko ekainera euskara ikasi eta honako talde baten kide izanez gero, udal diru-laguntzez baliatzeko aukera:

- Gurasoak
- Aisialdiko begiraleak
- Kirol begirale edo entrenatzaileak
- Aisialdi begirale edo kirol entrenatzaile izateko ikastaroetako ikasleak
- Merkataritza arloko langileak (Merkataritza eta Industria Ganberaren bidez)
- Herriarrek (diru-laguntza hauetarako ezarritako mugak gainditu ezean)

VITORIA-GASTEIZKO EUSKALTEGIAK ETA EUSKARA IKASTEKO ZENTROAK

IKA

945 15 43 41 www.ikanet.net

AEK

945 25 24 00 www.aek.org

UDABERRIA

945 22 34 33 www.udaberria.org

HEGOALDE

945 28 41 96 hegoeusk@euskalnet.net

BAI&BY

945 15 71 10 gasteiz@baiby.com

MONDRAGON LINGUA

945 15 01 55 www.mondragonlingua.com

Uhin luzera berean gaude,
euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Hogei talde nafarren abestiak eremu ez euskaldunean euskaraz bizi nahi duten familien alde

EUSKARAZ BIZI ETA IKASI HERRI



EUSKARAZ BIZI ETA IKASI Herri Ekimenak argitaratu duen CDak hogei abesti biltzen ditu. Garesko Tortotxiki fundazioaren laguntza

izan dute eta musika talde bakoitzak bere alea jarri du. Leihotikan, Jaleo, Los goma, Hipotekaos eta Maria Morentin-en abestiak entzun dai-

Euskaraz Bizi eta Ikasi Herri
Ekimeneko kideak diskoa aurkeztu zuten egunean.

tezke, besteak beste. Ekarpena egin duten talde asko Nafarroako eremu ez euskaldunekoak dira. Taldeez gain hainbat norbanakok kolaboratu du diskoan, hala nola, Aitor Gorosabelek, Xabi Solanok eta Enrique Villareal “El Drogas”ek. CDan kantuak jasotzeaz harago, Euskararen Legeak Nafarroako erdialdean eta hegoaldean eragindako ondorioak jasaten dituzten protagonistek hitz egin dute: seme-alabek euskaraz ikasi ahal izateko Larragako familia batek egin beharreko aurrera-atzerak; Iturriagatik Lizarrara ikastera joaten diren sei haurren odisea; eta Tuterako ikastolako gazte batzuen gorabeherak. 5 eurotan jarri dute saltzen abesti bilduma.

Euskaraz Bizi eta Ikasi Herri Ekimena duela urtebete inguru sortu zuten eremu ez euskalduneko hainbat herritarrek. Irakaskuntza publikoan ez dago euskaraz ikasterik eta inguru horretako gurasoek haurrak ikastoletara edo eremu mistoko eskola publikoetara eraman beste aukerarik ez dute. Euskaraz ikasi nahiagatik pairatu beharreko ikasleen eguneroko exodoa salatu nahi du ekimenak. Sortu zenetik, Tafallan manifestazioa eta Aste Santuan Bertsokleta antolatu dituzte.

EKONOMIAREN TALAIAN

Justizia injustua bankuekin

EGUNKARIETAKO lehen orrialdeetan irakurri ahal izan dugunez AEBetako Justizia Departamentuak 12.000 milioi euroko (16.650 milioi dolar) isuna jarri dio Bank of Americari, herrialde hartako aktibo gehien dituen bigarren bankuari. Subprime hipoteka famatuen krisia leherrarazi zuten bonoen kudeaketan iruzur egin zuen entitate horrek. Herrialde horretan finantza erakunde bati inoiz ezarri zaion isun handiena da, inork ez baitzuen hainbeste egin Mendebaldeko ekonomiaren krisirik handiena –1929ko hondamendiaz geroztik, behinik behin–ekarri zuen engainua puzteko. “Erabaki historiko hau egokia da, ikusirik delituaren tamaina eta eragindako kaltea”, azaldu zuen AEBetako fiskal nagusiak.

Eta hala ere, delitu hori onartuta ere, AEBetako justiziak ez du banku horretako exekutiborik zigortu. Beraz, fiskal nagusiak esan arren isuna egokia izan dela, ez da hala. Zer justizia da hori? Iruzurra bat-batean sortu zen

bere kabuz? Pertsonak, zuzendariak, exekutiboak eta kontseilariak sortu zuten, edo behintzat beste alde batera begiratu zuten hartaz jabetzeaz. Iruzurrak arduradun batzuk ditu, izen eta abizenekin, administrazio kontseilutik hasita. Zein dira Mendebaldeko krisi handienetakoa sortu zuen gezur milioiaren horren arduradunak? Zergatik AEBetako justiziak ez du prozesua muturreraino eramaten, arduradunak zuzenean zigortuz? Hori ez da justizia, injustizia itzela baizik.

Egia da Espainiako Estatuan justiziak ez dizkiela halako isunak jarri lehentasunezko partaidetzak eta beste produktu opakoak saldu zituztenei. Nahiko genuke AEBek egin bezala egitea. Baina ez hori bakarrik. Arduradunak judizialki zigortu eta kartzelara eraman behar dira. Horrela baino ez litza-teke herritar orok ulertzen duen gisako justizia izango.

Juan Mari Arregi





Azpea
NAVARRA
Denominación de Origen

ARDO EKOLOGIKOAK

Lumbier (Nafarroa)
www.bodegasazpea.com



Europa Ukrainan katramilatu zen 2014ko uda hura


Kasik oharkabea, Kieven gobernuak uzkailezko matxinada europazalea sortu zena 2014ko abuzturako gerra odoltsu bilakatu da Ekialdeko Ukrainan. Horko guduen edo bake-solasen erritmoan dabil dantzan Europa. Gerra hotza berriro. Analistak XX. mendeko bi gerra handien aurreko giroa aipatzeraino heldu dira. Ondo korapilatuta dago Europa.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

MENTURAZ ESAJERATUA IRUDITUKO zaigun arren esatea mundua gerran dagoela, zalantzarik gabe gauzak asko okertu dira uda honetan". Kataluniako kazetari eta analista ospetsuenetakoa den Enric Julianak idatzi du oporren bueltan *La Vanguardian*. Geopolitikaz gertu dauz-kagun eskualdeetako arazoez gain (Gazako triskantza, Siria eta Iraken bizi duten gudu zibil izugarria, Ebola birusa Afrikan barrena...) Ukrainako gatazka okerragotu egin da, Jugoslaviako gerren garaietatik ikusi gabeko txikizioak eragiteraino.

Iturri fidagarrien arabera 2.200 zibil hil dira orain artean Ukrainako Ekialdeko gerran lau hilabete laburrotan. Horiei gehitu hildako 1.800 militar eta miliziano, Kieveko gobernuaren aldekoak ia erdiak. Gehi iheslari masa harrigarria: Nazio Batuen Erakundeak Errusiara eskapo 207.000 jende joan direla esan du –beste iturri batzuek kopurua 700.000raino igo dute–, eta 190.000 gehiago babestu direla Ukrainako beste eskualdeetan. Biktima kopuru izugarria da Europar Batasuneko eta OTANeko kide bihurtzeko bidean den herrialde batean.

Gatazkak hartu duen jitea adierazteko irudi batzuk hautatzeko-tan, baliagarri litezke Txetxeniatik bertaratutako gudarien argazkiak. Dokumentatuta dago txetxeniarrek badi-rela bai Kieveko gobernuaren alde ari diren milizianoen artean, bai Donbassen errepublika inde-



1,3 milioi biztanle dituen Kaukasoko Txetxenian 1994tik 2009a arteko bi gerretan 160.000 herritar hil ziren. Horietan bai Errusiaren alde eta bai kontra aritutako batzuk orain Donbassekoan azaldu dira. Miliziano errusiar-

zaleen artean ari dira batzuk, *Liveleak* zerbitzuaren bideo batetik hartutako irudi handikoak esaterako: Putinen eskumakila den Ramzan Kadirov presidentearen alde borrokan ari izanak direla aitortu zieten kazetariei orain *Vostok* brigadan tiroka ari diren gizonok. Aldiz, Oliver-Carollek egindako argazki txikikoa da Txetxenian errusiarren kontra gudukatu ostean orain Kieveko gobernuari laguntzen ari diotenetako bat: Ruslan Arsayev bere bortizkeriak famatu egin duen *Aidar* batailoian dabil tiroka, miliziano atzeritar gehiagoren artean. Jugoslaviako gerren pindarrak oraindik hoztu ez direnean, guda-ri txetxeniarrok kezkatzeko moduko mezuak dakarziote Europari.

pendentea sortu nahi duenetan. XX. mende amaieran izan baldin bada gerra gupidagaberik, Txetxeniakoa izan da. Orain errusiazalei laguntzera Ukrainaraino iritsiak dira Ramzam Kadirov diktadorea-

ren alde aritutakoak; eta Kieveko gobernuaren tropekin eskuz esku ari diren beste kide antikomunisten eta faxisten artean Txetxenian errusiarren kontra borrokan ibilitakoak badira. Noizbait argituko

Agintariek diote Ukrainatik Europa gerra arriskuan dabilela baina... herritarrok sinetsi ote diegu?

BIELORRUSIAKO MINSKEN ELKARTU zirenean abuztuaren 26an, Errusiako Vladimir Putin eta Ukrainako Petro Poroxenko lehendakariak elkarri bostekoa emanez egindako argazkiak aditza eman zezakeen Ukrainako krisiaren irtenbiderako zirrztatu bat aurkitu zutela bateko eta besteko buruzagiek.

Ilunabarrerako, ordea, agentziak hedatzen ari ziren lehenik Donbasen errebelde errusiazaleek fronte berri bat sutu zutela Kieveko armadaren kontra. Handik ordu gutxira OTANek zabaldu zituen Errusiaren ibilgailu militarrei Ukrainako mugen barruan sateliteetatik egindako argazkiak. Berehala OTANeko idaz-

kari nagusiak berretsi zuen erakundeak ekialdera hedatzen segituko duela. Zertarako balio izan ote zuen Minskeko bilkurak? Ezertarako balioko ote zuen hiri berean progra-

matutako hurrengoak?

Hedabideok 1914-19ko gerraren mendeurrenarekin jira eta buelta gabiltzan garaiotan hain deigarri ez zen egiten aditu bat baino gehiagok



Vladimir Putin eta Petro Poroxenko elkarri bostekoa ematen abuztuaren 26an Bielorrusiako Minsken burutu gailurrean, bitartekari-lekuko dauzkatela, Europar Batasunaren kanpo arazoetarako komisario Catherine Ashton eta Kazajstango lehendakari Nursultan Nazarbaiev.

da gudari atzerritarren artean zenbat ziren boluntarioak eta zenbat mertzenario.

Hedabide nagusiek egiten duten espektakuluzko komunikazioak aski balu bezala Gazako masakreak 50 egunez eskaini dituen estampa odoltsuekin, Donbas eskualdeko jende soilen sufrikarioari ez zaio Europan behar adina garrantzia eman. Baina kalteak izugarriak dira.

Hildako eta zaurituez gain, morteroz eta artilleriaz suntsitutako ehunka etxebizitza, eraikin publiko eta azpiegitura zenbatu behar dira. Populazioari gosea ezarri zaio, laguntza humanitaria eragotzi.

Kalte ekonomikoak zenbatzeko goizegi da, egunero dago gehiago. Datu bat: Ukrainako Ekialdeko 35 ikatz meategitatik 30 geldirik daude eta argindar faltagatik urez betetzen hasi dira.

Gerraren prezio garestia ekialdeaz gain Ukraina osoa ere hasi da pagatzen. Nazioarteko Diru Funttsaren laguntza planak izozturik daude, Kieveko gobernuak ordainak itzuli ezin dituelako. Barne Produktu Gordina %5 eta %8 artean eroriko omen da 2014an.

Gabriel Sternek *Oxford Economics*-en idatzi duenez, Ukrainako Estatuak ordainketak epe laburrean eten

ditzake, orain artean herrialdeak AEBekin, Nazioarteko Diru Funttsarekin eta Errusiarekin egindako zorrei aurre egin ezinik. Paradoxa dirudien arren, AEBek eta Europar Batasunak Errusiari ezarritako zigor komertzialek, nahiz eta estrategikoki Ukrainari laguntzeko izan, dirutan epe laburrean honen ekonomia kaltetzen dute.

Gerra hotz berriaren muxikak

Joan den abuztuan bitxi egiten zen egunkari handienek burtsei eskaintzen dizkieten txokoetan adituak hain sarritan Ukrainaz aritzea. Diruak beldurra dio segurtasunik ezari eta Ukraina aipatzea Europaren segurtasun falta oroitaraztea da akzioen salerosketa merkatuetan.

AEBek eta Europar Batasunak Errusiarekiko harreman komertzialei ezarritako zigorrak errusiarren artean zenbaterainoko mina egiten dien asko aipatua zen lehendik:

Errusiatik kanpoko bankuetan gordetako dirutzak izozturik dauzkate aberats errusiarrek, esportazioek kolpe gogorra jasan dute eta, ororen buru, Errusiaren hazkundera izozturik geratu da.

Abuztuan, aldiz, nabarmendu dira Gerra Hotz berriak Mendebaldean eragindako kalteak. Telebistek erakutsi dizkigute AEBen eta EBren enbargoagatik Errusiatik bueltan zetozen mertxika eta gainerako fruitu alferrik galduak. Zigor ekonomikoaren gainerako ataletan ere izan du eragina eta 2008ko krisitik ateratzen hasteko eduki zitzaizketen itxaropen apurrak ihartu ditu.

Alemaniko kantziler Angela Merkel Ukrainako lehen ministroari konponbide negoziatua bilatzen ikustea horrek esplikatzeko du. Ez da inoren sekretua Kieveko gobernuaren kontrako matxinada 2013ko neguan Alemaniak bereziki sustatu zuela, Viktor

beren beldurak azaltzea XXI. mende hasiera honi begira. Ber gauza 2008az geroztik bizi dugun krisi ekonomikoaren ikerlariek orotaraztean neurri bereko aurreko krisitzarrak, 1929koak, Bigarren Mundu Gerra ekarri zuela. Argudio burutsuak izan edo katastrofismo arinegiak, ez dute lortu jendeak etxean edo kalean posibilitate horretaz hitz egitea.

Baina abuztu honetan zerbait berezia gertatu da: oso aspalditik entzuten ez ziren gerra aipamenak entzun zaizkiela Europako agintariei. Gerra arriskuan dela Europa. Ukrainako Poroxenkok ohartarazi du oso hurbil gabiltzala gerra handi bati buruz atzerako biderik gabeko puntua gaindizetik. Ordu batzuk beranduago Europar Batasunak Jose Manuel Barrosoren ahotik erabili du formula kezagarri bera: “*Conflict clo-*

ser to a point of no return”. Lituaniako presidente Dalia Gribauskaite urrunago joan da, esanez dagoeneko Errusia Europarekin gerra dagoela (“*Russia is practically in a state of war against Europe*”).

Saihestu ezinezko talka

Gerraren kontrako mugimendurik ezak erakusten duenez, herritarrek ez diote hainbesteko larritasunik ikusten Ukrainakoari. Gertatzen ari ote zaie ipuineko igelari bezala, alegia, sutan ipinitako pertza barruan gero eta beroago zen uretan oharkabean egosi zen igelarena?

Kieveko Maidan plazako elkarretaratzeetatik hasita egunotara arteko gertakizunen kronologian nekez aurkitzen da puntu bakar bat non tentsioa baretzeko neurri eraginkorrik hartu den. Ikusi da hauteskundeak irabazitako lehendakari bat matxina-

daren aurrean ihesi lotsagarrian, gero tiroen hasiera, artilleria ondoren, hirien setioa, Ukrainako armada bere zibilak bonbardatzen, Errusiako armada disimulu gutxiarekin Krimea inbaditzen, atzerritik etorritako mertzenarioak eta boluntarioak guduak, hegazkin komertzial bat misilez lurreratzen...

Esan liteke gaian nahasiak diren potentzia handiek –AEBk, Europar Batasunak, Errusiak...– elkarren kontrako talkaren aldeko apustua egin dutela. Edo alderantziz, beste batzuek ulertu dutenez: pilatu direla ziklo ekonomiko eta politikoen agortzeek ekarritako tentsioak eta ez bateko eta ez besteko agintariek ez dutela asmatzen gerra ez den konponbide bat aurkitzen. Baina sua kontrolatzeko modurik aurkitzen ez badute, laster dena izanen da ezberdin Europan. Inor ohartzera.

Ianukovitsek uko egin zionean Europar Batasunarekiko elkartzetara sinatzeari. Orain, liskar haren gaiztozakeak (Errusiak Krimea bereganatu, gerra bortitza Donets eta Luhansk eskualdeetan...) Alemaniaren hazkunde bera jarri duenean arriskuan, Merkel pertsonalki busti da egoera bideratzeko ahaleginean, Europar Batasunak horretarako dauzkan aginte eta erakundearen jelskeriaren beldurrik gabe.

Inork ez luke amestu behar Ukrainako gerraren akabera azkar eta samur batekin. Dagoeneko urrunegi iritsi dira urak. Europar Batasunak eta AEBek gogor egin dute apustu EB eta OTAN Errusia-

ren mugetaraino eramatearekin. Vladimir Putinek garbi erakutsi du oraingoan ez duela onartuko. Krimea nola bereganatu duen ikusi baizik ez. Eta Georgiari Abkhazia edo Moldaviari Transnistria bereizi bazitzaizkion... zergatik ez zaio bereiziko Donbass Ukrainari?

Baina... Ekialdeko Ukrainako gatazka arazo ekonomikoak hedatu dituela pentsatzeko orde esango baliagute 2008ko krisia bera dela gatazka ugaritzen dituen? Britainia Handiko Channel 4 telebistako ekonomi arduraduna den Paul Masonek hala iradoki du *The Guardian*en “Nola melokotoiek eta propagandak laguntzen duten munduaren ordena berria

antolatzen” kronikan.


Dio Masonek: “Nahiz eta 1930ekoak baino inpaktu sozial txikiagoa eduki duen, 2008an hasitako krisia denboran luzeagoa izan da eta zenbait alorretan sakonagoa. Ondorioz, pixkanaka sartu gara ekonomia-aren historialariek ohartarazia ziguten ‘irteera’ fasean: segurtasuna nork lortuko lehia gogorra, nazionalismo ekonomikoak gidatua. Aurreneko mugimenduak morroien bidez egin dituzte Ukrainan”.

Horregatik ez dauka lehiakideek oraingoz negoziatzeko eremurik eta bai fronte berriak irekitzeko irrika. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Eskoziako garaipena

KRISI EKONOMIKOA, burujabetza, bakegintza eta hauteskundeak izango dira datorren kurtso politiko berriaren zutabe nagusiak. Hazkunde ekonomiko urriaren miraria –2014rako BPGren %1,5eko aurreikuspena – ari dira saltzen Espainiako agintariak, PPren erreforma ekonomikoen ondorio litzatekeena eta 2015ean jarraipena izango lukeena, %2ko hazkundearekin. Eta ekonomia usaina baino, datu hauei hauteskunde usaina darie, Espainia eta Europako datu ekonomikoei begiratuta bederen.

Batek daki zer egingo duen ekonomiak, baina jadanik krisiaren azken zazpi urte hauetan egindako triskantzak atzeracezinak dira epe laburrean: egindako murrizketa itzelen esparruak ez dira samur berreskuratu, ongizate estatuan emandako atzerapausoa handia izan da, soldaten beheakada ere bai eta langabeziak inoizko handiena jarraitzen du izaten Espainian. Langabeziaren kasuan, oihartzuna izan dute Juan Ramón Cuadrado espainiar katedradunak joan den astean egindako adierazpenek: hazkunde izango da, langabezia murriztu ere egingo da, baina Espainian egun diren 5 milioi langabeetatik 2 milioi jadanik ez dute lanposturik izango.

Europar Batasunetik datorren haizea, gainera, hotzikara eragiteko modukoa da: Alemania, Frantzia eta Italiaren hazkunde aurreikuspenak negatiboak dira 2014rako eta, beraz, logikoa da pentsatzea horrek Espainiako ekonomian ere eragin handia izango duela, besteak beste bere esportazioen zati handiena Europa doanean. 2007an hasitako

krisiari austeritate ospetsuarekin erantzun zaio EBN eta ez dirudi alde horretatik aldaketa handirik izango denik. Aitzitik, zurrumbilo horren gaitasuna indartuz doa eta dagoeneko Frantziako Gobernua bera ere irentsi du. Vicenç Navarro ekonomialari katalanak bere blogean dioenez (*Susperraldia? Hirugarren atzeraldian sartzen ari gara*. Abuztuak 27), ateratzen ez, orain krisi hasierako hirugarren atzeraldian sartzen ari da EB.

BURUJABETZA dela eta, oraingoan besteei begiratzea dagokigu. Eskozian –irailak 18– eta Katalunian –azaroak 9– independentziari buruzko erreferenduma egingo dira eta horien eragi-

Independentzia eskuratu ala ez, Eskoziakoa garaipena da estatu bila ari den edozein herrirentzat

na handia izango da gurean ere. Independentzia eskuratu ala ez, Eskoziakoa garaipena da estatu bila ari den edozein herrirentzat: zein luxu handiagoa, halako erreferenduma bat akordioz egitea baino?

Kontrako muturra da Ukrainako gerra. Oso egoera eta testuinguru desberdinak izan arren, oinarrian arazoaren funtsa bertsua da: zergatik ez dute negoziatzen Kievek eta errusiar zaleek Eskoziakoa moduko irtenbide bat? Arrazoi ugari egon daitezke baina bi behintzat lehen lerrokoak dira: bat, estatu kolpearen ondorengo Kievetako gobernuak ez duelako balizko banaketaz ezer entzun nahi; bi, atzean Errusiaren indarra dutela jakinik, Ukrainako ekialde-

ko matxinoek Krimearen txanpa baliatu nahi izan dutelako Ama Errusiarekin bat egiteko. Eskozia eta Ukrainaren artean egon liteke Katalunia, gerra usain barik, baina Espainiarekin piztu daitekeen gatazka handi baten atarian. Espainiak Konstituzioaren indarra du, besteak beste indar armatuena; Kataluniak bere herritarren gehiengoarena, soilik hori, baina demokraziaren muinari begira garrantzitsuena. Izango ote da behar adinako maila demokratikorik Espainian?


EUSKAL HERRIRA begiratuz gero, ezin baikor izan. ETak armak utzi ondoren guztiontzako irtenbidean sakondu ordez, mendeku eta gatazka politikan ktramilatzen den PPren gobernuarekin ezin esperantza handirik izan. Urte asko behar dira hamarkadetako mina bizikidetzan ubideratzeko, baina ez

bakearen oinarriak jartzen hasteko. Euskal Herriko bake prozesuaren egoera neurri asko di-da hartu ahalko lirateke funtsezko gaitetan, armak, presoak eta biktimen esparruan, esaterako. Urtero ematen dira urratsen batzuk eta aurten ere izango dira, baina dena litzateke desberdin Madrilek prozesu hori lagunduko balu. Oraingoan, alabaina, mendeku politika konponbidea baino hobeto datorkio PPri, batez ere 2015eko maiatzeko udal hauteskundeetara begira: ohiko politika gogorrek botoak ematen dizkiote Espainian; konponbiderako neurriek, bake giroa indartuko lukete euskal gizartearen, baina Espainian akaso boto gutxiago eman ere bai. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat

Lar Zaldiak



Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA

www.larzaldiak.com

1

Ekainberri

Ekain berri



3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2

Inguru Abentura



4 lagunentzako
bina saio

San Juan 18,
Albeniz-Azparrena ARABA

www.inguruabentura.com

3

STM
San Telmo Museoa



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

4

Illimani



liburua opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2425. Argia)

LAR ZALDIK

- Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)

AQUARIUM

- Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)
- Dioni Beraetxe Aranburu (Usurbil)
- Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)
- Maite Aboitiz Atxurra (Bilbo)

SAN TELMO

- Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)
- Pedro De Errekagorri Y Etkezarraga (Lemoa)
- Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)

EUREKA

- Maider Guridi Zumalde (Madril)
- Gloria Soledad Larrañaga Urrutia (Donostia)

BIXENTE AMEZTOY

- Karlos Zarraga Ellakuria (Zaratamo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



argia eguna

IRAILAK 27
USURBIL

FANFARREA

USURBILGO ARGIAREN LAGUNEI OMENALDIA

IBILALDIA - TAILER EKOLOGISTA

HAURRENTZAT JOLASAK

ARGIAZALEEN TOPAKETA


HERRI BAZKARI UMORETSUA

JOLAS ZIRIKATZAILEAK

BERTSO SAIOA - KALE EZTANDA

KONTZERTUAK

...



Laguntzaileak:

an25a
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

